KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2024 / Azaroa / 353. zenbakia

www.oñati.eus

EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

Autonomiari eta ongizate mailari eusteko laguntza

Zerbitzua erabilgarri dago mendekotasun arinen bat duten 65 urtetik gorakoendako

Gazteak, mugikorrak eskuetan dituztela. ISTOCKPHOTO

Arlo digitalean nerabeen bidelagun izateko, gurasoentzako tailerra

> Gurasoentzako tailerra antolatu dute Ongizate Zerbitzuek, Agipad elkartearekin elkarlanean. Bertan, gurasoek seme-alabei nola lagundu landuko da, haiek pixkanaka emantzipazio digitala eskuratu arte. Tailerra DBHko 1. eta 2. mailetan dauden nerabeen gurasoei zuzendutakoa da

Oñatiko Udaleko Ongizate Zerbitzuek, Agipad elkartearekin elkarlanean –drogen abusuaren ikerketa eta prebentziorako Gipuzkoako elkartea–, DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleen gurasoei zuzendutako alfabetatze digitalaren gaineko formakuntza tailerrak emango ditu abenduan eta urtarrilean. Formakuntzan, nerabeek mundu digitalarekiko duten harremana aztertuko da eta gurasoei bidelaguntza eskainiko zaie, eta seme-alabei pantailen eta sare sozialen erabilera egokia egin dezaten nola lagundu landuko da. Saioak abenduaren 4an eta 11n eta urtarrilaren 8an eta 15ean izango dira, Bidebarrietako Euskaldun Berria gelan, 18:00etatik 20:00etara. Agipad elkarteko prebentzio zerbitzuko arduradun Pakita Mateosek zuzenduko ditu saioak.

KEZKA NAGUSI

Oñatiko Udalaren 2023ko Adikzioen Prebentziorako Tokiko Planaren baitan kokatzen dira tailerrak, pandemiaren ondoren egin zen diagnostikoan kezka nagusien artean pantailei eta sare sozialei egiten zaien erabilera azaldu baitzen. Beste herrietan bezala, Oñatin ere teknologiarekiko eta sare sozialekiko adikzioak nabarmen gora egin zuela ikusi zen, eta adinean ere aurreratu. "Planaren garapenean, kezka nagusien artean, substantziarik gabeko adikzioak azaldu ziren, tresna elektronikoei eta sare sozialei erabilerari lotutakoak, batez ere, bai gazteen eta bai helduen artean", azaldu du Ongizate batzordeburu Lierni Altubek. Alde horretatik, prebentzio arloan esku-hartzeak proposatu ziren; besteak beste, prebentzio familiarra garatzea udalerriko familiei tresnak emanez, Bigarren Hezkuntzako prebentzio programa garatzea eta guraso trebetasunen arloko prestakuntza-taldeak garatzea, 12- 16 urte arteko seme-alabak dituztenentzat.

Oñatiko Udalaren Adikzioen Prebentziorako Tokiko Planaren baitan kokatzen dira tailerrok

Gurasoei zuzendutako tailerra

Abenduak 4-11 eta urtarrilak 8-15
18:00etatik 20:00tara. Bidebarrieta kalea 18; Euskaldun Berria gela.

Izen ematea, azaroaren 29ra arte
943 03 77 00 telefonora deituta edo 'ongizatea@onati.eus' helbide elektronikoan.

"Bertaratzen diren gurasoek gogoeta egin dezaten saiatuko gara"

PAKITA MATEOS HERNANDEZ AGIPAD ELKARTEKO PREBENTZIO ZERBITZUKO ARDURADUNA

28 urte daramatza Pakita Mateosek adikzioen prebentzioan lanean. Substantziekiko adikzioetan aditua da, eta gaur egun substantzia bako adikzioak ditu jomugan.

Zer landuko da tailerretan?

Familiekin esku hartzea da asmoa, familiek seme-alabei arlo digitalarekin zerikusia duen guztia arduraz erabiltzen lagun diezaieten. Jakitea zein diren erabilera-adin egokiak, mota egokiak, eduki egokiak... harik eta haiek modu autonomoan egoki erabiltzen ikasten dituzten arte.

Zergatik da garrantzitsua arlo horretan eragitea?

Helduok onartu behar dugu pantailak dituen gizarte batean gaudela eta nerabeendako sozializazioarekin zerikusia duen guztian garrantzi handia dutela. Gure seme-alabak sozializazioan heztearen ardura helduona denez, arlo horretan ere lagundu beharko diegu. Arlo horretan babesgabetasun handia dagoela uste dugu.

Adikzioa sortzen dute?

Alde batetik, adikzio bat izan daitekeela deskribatuta dago, eta ikerketa batzuek hori egiaztatzen dute. Halere, erabilera jakin batzuek beste era bateko zailtasunak sor ditzakete, eta ez, nahitaez, mendekotasuna. Esaterako, sare sozialetan gehiegizko esposizioa, edota transmititzen ari diren balioak, onak edo txarrak ez diren informazioak baina adin jakin batzuetan ulertezinak direnak... Gertatzen dena da ez garela ari nerabeak babesten, ez politika alorretik, ezta familietatik ere. Kasu batzuetan ezjakintasunagatik eta gehienetan

PAKITA MATEOS

erosotasunagatik; izan ere, gu ere sareen munduan murgilduta gaude, eta, askotan, harrapatuta.

Zer landuko da saioetan?

Lehenengo saioa familiei eskainiko diegu, eta, gero, sare sozialek nerabeentzat zer dakarten aztertuko dugu. Ze den hortik lortzen dutena eta zeri uko egingo lioketen gauzak aldatuta, helduok ulertzen ez ditugun gauza asko daude eta. Eta, gero, komunikazioaz, arauez eta mugez hitz egingo dugu. Bertaratzen diren pertsonek gogoeta egin dezaten saiatuko gara. Lehenik eta behin, gurasoak zein unetan dauden jakin behar dute. Arazoa ez da nerabearen mugikorra. Nerabe askok zentzuz erabiltzen dituzte pantailak, baina jakin behar dugu beste batzuek zergatik ez dituzten horrela erabiltzen.

"EZ GARA NERABEAK BABESTEN ARI, BATZUETAN EZJAKINTASUNAGATIK ETA ASKOTAN EROSOTASUNAGATIK"

Mindfulness eta erlaxazio tailerrak egingo dira azaroan eta abenduan

> Iturrigorri Elkarlan elkarteak eta Oñatiko Udalak antolatuta egingo dira tailerrak, Euskaldun Berria gelan

Azaroaren 21ean, 25ean eta 28an eta abenduaren 2an, 9an eta 16an egingo dira mindfulness eta erlaxazio tailerrak. Saio bakoitzak ordu eta erdi iraungo du, 18:30ean hasi eta 20:00ak arte. Izena emateko bi bide erabili daitezke: 687 75 28 42 telefonora deituta edo *maribelpachecos@gmail.com* helbidera idatzita. Saioak Iturrigorri Elkarlan elkarteak eta Oñatiko Udalak antolatu dituzte, elkarlanean.

BARRURA BEGIRA

Iturrigorri Elkarlan elkarteak herritarrak animatu gura ditu saioetara joan daitezen, egunerokotasunak eragiten duen neketik aldendu eta barnera begirako lanketa bat egin dezaten. "Tailerren bitartez lagunduko dizugu zure barrurantz begiratzen eta bizitzan aurrera egiten laguntzen ez dizuten sentimenduak zeharkatzen eta identifikatzen, beldurra, amorrua eta tristura izan daitezkeen bezala".

Pake Lekuko erabiltzaileak eta dinamizatzailea udal ordezkariekin. KONTZEJUPETIK

Eguneko Arreta Zerbitzua

Gaitasunei eutsiz, lagunartean

Eguneko Arreta Zerbitzua 65 urtetik gorako herritarrei zuzendutako zerbitzua da, menpekotasun arin bat izan arren bizimodu autonomoa egiteko gai direnei. Martxan jarri zela urtebete igarota, herritar gehiago animatu gura dituzte

Urtebete pasatxo da Oñatiko Ongizate Zerbitzuek Eguneko Arreta Zerbitzua martxan jarri zutenetik. Zehatz, 2023ko maiatzean ekin zioten zerbitzua eskaintzeari, eta, denbora hau igarota, hartaz egiten den balorazioa oso positiboa da. Eguneko Arreta Zerbitzua 65 urtetik gorako herritarrei zuzendutako zerbitzua da. Bina saio egiten dituzte, Pake Lekun eta Lagun Lekun, eta erabiltzaileen gaitasun fisiko eta kognitiboak lantzea du helburu, haien bizi-kalitatea, autonomia eta ongizatea hobetzeko. Menpekotasun arin bat izan arren bizimodu autonomoa egiteko gai direnei zuzendua da, edo komunitatean integratzeko zailtasunak dituztenei. Lagun Lekuko taldean hiru erabiltzaile daude eta Pake Lekukoan zazpi, eta talde bakoitzean hamabi lagunendako tokia dago. Hori horrela, Udalak herritarrak animatu gura ditu zerbitzuaren parte izatera.

Saioak dinamizatzen Lahar Elkargoko Maialen Pacios ari da 2023ko azaroa ezkero, eta onura asko dituela nabarmendu du, bai sozialak, baita kognitiboak ere. "Zerbitzua oso ondo dago. Helburua da egiten ditugun ariketen bitartez erabiltzaileak edo dauden moduan mantentzea edo hobetzea. Joan den urtean egindako inkestan denek esan zuten edo mantendu egin direla edo hobekuntza igarri dutela hona etortzen hasi direnetik". Lanketak era askotakoak izaten dira. Berriketaldi luzeak izaten dituzte eta jokoak, esku-lanak, ariketa fisikoa eta arlo kognitiboa lantzeko lanak egiten dituzte. Azken finean, estimulazioa lantzen dute, bakoitzaren neurrira ipinitako ariketen bitartez. "Pertsona bakoitzaren gaitasunak desberdinak dira. Ikasketak, egoera kognitiboa... Fitxak eta lanak pertsonalizatzen joaten naiz eta taldeko lanetan elkarrekin egoten gara", azaldu du Paciosek, zerbitzuko dinamizatzaileak.

Estimulazioaren bitartez lortzen diren onurak askotarikoak dira, bai sozialak, baita kognitiboak ere

HERRITARREI DEIA

Euskadiko Ongizate Zerbitzuen legeak tokian tokiko udalen ardurapean uzten du horrelako zerbitzuak martxan jartzea, eta, abiatu zenetik

KONTXI ARENAZA
ERABILTZAILEA

"Zerbitzua martxan jarri zenetik nabil hemen, eta oso gustura etortzen naiz. Jendearekin egoteari garrantzi handia ematen diot, eta talde polita gara. Beti izan naiz oso zirikatzailea, eta hemen ere halaxe ibiltzen naiz".

urtebete igarota erabiltzaileengan sortzen dituen onurak ikusirik, 65 urtetik gorako gizon-emakume gehiago animatu gura dituzte bertara. "Zerbitzu berria da, eta esango nuke askok ez dutela ezagutzen", dio Maialen Paciosek. "Baina animatu gura ditugu herritarrak probatzera. Ez dago konpromisorik; probatu dezatela, eta, gustatzen bazaie, gera daitezela. Hasieran urduri etortzen dira, baina dinamika ezagutzen dutenean ohitu egiten dira eta oso gustura egoten dira", gehitu du.

ONGIZATE ZERBITZUETARA

Zerbitzua probatu gura duen orok Udaleko Ongizate Zerbitzuekin harremanetan jarri beharko du. Han kasu bakoitza aztertuta erabakiko da zerbitzurako egokia den edo ez, eta, horrela bada, zerbitzua erabiltzen hasteko aukera izango du berehala. Lau ordu astean, dinamizatzaile profesional batek lagunduta, gaitasun fisiko eta kognitiboak landu eta ongizate mailari eutsi edo hura hobetzeko.

Eguneko Arreta Zerbitzua

Lagun Lekun
Astelehen eta asteazkenetan, 10:00etatik 12:00etara.

Pake Lekun
Astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 12:00etara.

Oharra: interesatuek Ongizate Zerbitzuetara dei egin dezakete. 943 03 77 00 telefono-zenbakira.

"Beste bultzada bat eman gura diogu Oñatiko Udaleko Ongizate Zerbitzuetatik, gure herriko helduen bizi-kalitateari eta ongizate mailari eusteko"

LIERNI ALTUBE MOIUA OÑATIKO ONGIZATE BATZORDEBURUA

Oñatiko Udalak iaz jarri zuen martxan Eguneko Arreta Zerbitzua; zein helbururekin?

Adineko pertsonen autonomia indartzea da Eguneko Arreta Zerbitzuaren helburua, euren gaitasun fisiko eta psikikoak lantzea. Egiten duen ekarpenaz jakitun, beste bultzada bat eman gura diogu Oñatiko Udaleko Ongizate Zerbitzuetatik, gure herriko helduen bizi-kalitateari eta ongizate mailari eusteko.

Zein da orain arte egiten duzuen balorazioa?

Oso balorazio positiboa egiten dugu. Uste dugu zerbitzu ona dela profil bateko herrikideen zaintzarako. Harrera ona izan du herrian. Bertara gerturatutako erabiltzaileak gustura ikusten ditugu. Gainera, esan beharrekoa da zerbitzu honek bakardadea saihestea ere bilatzen duela, desberdinen arteko harremana sustatzea. Horregatik zehaztu ziren topaleku moduan Lagun Leku eta Pake Leku. Horri esker, Eguneko Arreta Zerbitzura etortzen diren adineko pertsonei bidea errazten zaie herriko beste espazio batzuetan parte hartzeko eta integrazioan urratsak egiteko.

Beraz, esan daiteke unean uneko beharretara egokitzen den zerbitzua dela...

Hala da. Eta garrantzitsua da hori. Asmoa da Eguneko Arreta Zerbitzua harekin bat egina duten herrikideen arabera moldatzea, euren unean uneko gaitasun eta beharrak kontuan dituen zerbitzu bat eskaintzea.

Zeintzuk dira aurrera begirako erronkak?

Jende gehiagorengana heldu gura dugu, zerbitzua aberasten jarraitu. Jakin badakigu herrian, familia giroan bizi arren, etxean ordu asko bakarrik pasa behar duten adineko pertsona ugari daudela. Halako espazio batek aukera eskaintzen du harreman berriak egin eta bakardade hori leuntzeko, jendearekin berba egiteko, espazio desberdinetan parte hartzeko, eta, nola ez, euren gaitasun psikikoa eta fisikoa lantzeko. Askotarikoa da erabiltzaileen profila. Uste dugu zerbitzua aberasgarria dela haiendako guztiendako. Horregatik gura dugu ezagutarazten jarraitu.

"BAKARDADEA SAIHESTEA DA HELBURUA, ETA DESBERDINEN ARTEKO HARREMANAK SUSTATZEA"

"GAITASUN FISIKO ETA PSIKIKOAK LANTZEN DIRA, BIZI-KALITATEARI ETA ONGIZATE MAILARI EUSTEKO"

Kiroldegiko lanak bide onean doaz eta urtearekin bukatu gura dituzte

> Kantxa berdeko eta urdineko **teilatuetan** ari dira lanean azken aste hauetan
> Kantxa urdineko harmailetarako **sarrera berria egin dute**, tabernatik sartu beharrik ez izateko
> Pilotalekuan eta kantxa urdinean LED **argiteria** jarriko dute, eta horrekin beste pauso bat emango da kiroldegiko efizientzia energetikoan

Kantxa urdineko teilatua inpermeabilizatzen. KONTZEJUPETIK

Kantxa berdeko teilatuko plaken bizi-lerroak egiten. KONTZEJUPETIK

Zubikoa kiroldegiko kantxa bietako teilatuetan langileak ari dira lanean azken aste hauetan. Bakoitzean egingo dituzten lanak, baina ezberdinak dira.

Kantxa berdekoan, esaterako, autokontsumoko plaka fotovoltaikoak instalatzeko aurrez egin beharreko lanak egiten dihardute. Hain zuzen ere, bizi-lerroak ari dira jartzen. Haien gainean kolokatuko dituzte gero plaka fotovoltaikoak; 272 guztira. Haiek sortuko duten energia kiroldegiko argindarrean erabiliko dute gero, faktura txikiagotuz gain, autokontsumoan beste urrats bat eginda. Artico enpresa ari da lan horiek egiten 82.038 euroko esleipenarekin –BEZa barne–.

Kantxa urdinean, bestalde, bi proiektu dituzte esku artean: sarbide berria egin, harmailetara sartzeko tabernatik joan beharrik ez izateko, eta estalkia berritzea. Egungo estalkian ura pilatu egiten da eta barrura sartu. Arazo hori konpontzea da lan horien helburua. Zazpi estalkik tapatzen dute kantxa urdineko eremua, eta denetan egingo dituzte inpermeabilizazio lanak. Malda berriak egokitu egingo dituzte, hustubide kopurua handitu eta lurraren kontra dagoen horma garbitu, besteak beste. Estalkien arteko guneak ere babestuko dituzte. Hiru enpresak osatzen duten UTE Oñati izeneko taldea ari da kantxa urdineko bi proiektuak egiten, 492.775,80 eurotan –BEZa barne–. Lehena, sarbide berria egitearena, bukatzear dute, eta teilatuko lanena urtea bukatu aurretik amaitzea da asmoa. Baita kantxa berdeko teilatuarenak ere, baina eguraldiak baldintzatu egin dezake epe hori. Lan horiek eginda irtenbidea emango zaio urarekin duten arazoari.

Kantxa berdeko teilatuko plaka fotovoltaikoek beste urrats bat egingo dute autokontsumoan

Kantxa urdinean ura pilatzen zen eta barrura sartu, eta arazo horri irtenbidea emateko lanak dira horiek

Lan horiez gain, kantxa urdineko eta frontoiko iluminazioa aldatu egingo dute, eta LED argiteria jarri. Aurretik, baina, egungo argi-puntuak aztertu behar dituzte eta bi espazio horietan argiztapen ona egoteko argi-puntuak non jarri behar diren ikusiko dute. Electricidad Cuadrak egingo ditu, 109.349,62 eurotan –BEZa barne–.

Urrats gehiago Emakumion Etxea Eraikitzen prozesuan

> Emakumion Etxia Eraikitzen prozesuaren baitan, bost lantalde jarriko dira martxan azaroan. Bileren egunak zehaztuta daude eta emakumeei dei egin gura diete talde bateko kide izatera batu daitezen. Lantalde berriak Zubigileak, Gobernantak, Programatzaileak, Saltserak eta Bisionariak dira

Azaroan jarriko dira martxan Emakumion Etxia Eraikitzen parte-hartze prozesuko lantaldeak. "Funtzio, zeregin eta maiztasun ezberdinak zerrendatu dira eta bilera zabal bat egingo da taldeak banatu eta lanean hasteko", azaldu dute Udaleko Berdintasun Saileko ordezkariek. Oñatiko Emakumion Etxia Eraikitzen parte-hartze prozesuak beste fase bati ekin dio ikasturte honetan. Oinarriak eta norabidea finkatuta daude, eta orain, taldeka banatu eta ekintzei eta zereginei helduko diete. Datozen hilabeteetan zein lan egongo diren zehaztuta dago dagoeneko, eta, horren arabera, talde batzuk aktibatuko dira orain eta beste batzuk aurrerago.

Kale Zaharreko Emakumion Etxia. KONTZEJUPETIK

BOST TALDE

Azaroan hasita, bost talde jarriko dira martxan: Bisionariak, Gobernantak, Programatzaileak, Zubigileak eta Saltserak. Taldeak martxan daude, beraz, eta horietan parte hartzeko aukera zabalik. Oso lan desberdinak eta askotarikoak dira egin beharko direnak. "Teorikoak, praktikoak, jarraipen handiagokoak edo oso puntualak...", azaldu dute Udaleko Berdintasun Sailekoek.

Oinarriak eta norabidea finkatuta, Emakumion Etxia Eraikitzen prozesua beste fase batean sartu da

Prozesutik dei egin gura diete emakume guztiei bertan parte hartzera; izena emateko hainbat bide daude

EMAKUMEEI DEIA

Emakumion Etxia Eraikitzen prozesukoek dei egin gura diete emakume guztiei bertan parte hartzera. "Denondako dago tokia eta denok izan gaitezke proiektu honen parte", azaldu dute. Hala, izena eman gura duenarendako hainbat bide daude: bata, webgunearen bitartez, *oñati.eus/eu/emakumion-etxia* helbidean; bigarrena, Berdintasun Sailera idatzita: *berdintasuna@onati.eus;* eta hirugarrena, telefonoz deituta edo *whatsapp* mezu bidez: 688 62 12 13. Prozesua martxa da eta horrela jarraituko du etenik gabe. "Etxeko lantaldeak aktibatzen dihardugu; izan ere, asmoa da etxea amaitu gabe ere egiteko moduak probatzen joatea. Behin etxeak ateak irekitzen dituenean, han jarraituko dugu lanean", adierazi dute Berdintasun Sailekoek. Aurreikuspenen arabera, 2025ean egingo dira obrak eta 2026an zabalduko ditu ateak etxeak.

Taldeen bilera egunak

Azaroak 11, astelehena, Udaletxean
- **16:00etan** Zubigileak.
- **18:00etan** Gobernantak.

Azaroak 12, martitzena, San Juan kaleko lokalean
- **17:00etan** Programatzaileak.

Azaroak 13, eguaztena, San Juan kaleko lokalean
- **16:30ean** Saltserak.
- **18:00etan** Bisionariak.

0 eta 3 urte artekoendako jolasgunea San Lorentzon

Umeen esplorazioa **du helburu** jolasgune berriak, eta **material naturalak** erabiliko dituzte kobazuloa, jantokia, baratza eta basoa **irudikatzeko,** esate baterako

Jolasgune berriaren planoa goitik ikusita. OÑATIKO UDALA

Gunearen balizko birsorkuntza bat. OÑATIKO UDALA

0 eta 3 urte arteko umeendako jolasgune bat egingo dute San Lorentzon. Auzo horretako lehen plazatxoan, autobus geltoki atzean dagoen espazioan egingo dute, iturria eta egungo parkearen artean dauden orubeetako bi moldatuta. Hala, hantxe egingo dute 0 eta 3 urte arteko haurrentzako jolastokia, egungo gunea berrituta.

ASKOTARIKO JOLASAK

Esperientzietan oinarritutako jolasgunea izango da. Elementu batzuk txertatuko diren arren, jolasguneak haurraren esplorazioa bultzatzea du helburu. Helburua hori izanik, hainbat atal izango ditu guneak: gozotegia, baratzea, basoa, kobazuloa, tarima, mendia, atsedentokia eta jantokia, besteak beste. Erabiliko dituzten materialak ere propio umeen gunerako eta euren esplorazio jolasetan lagungarriak izango zaizkienak aukeratutakoak izango dira, hala nola belarra, pinu azala, egurra eta kortxoa.

MATERIALAK

Herriko jolasguneen inguruan aurreko agintaldian egin zen diagnosia dago proiektu horren jatorrian, Haur eta Gazteriako batzordeburu Ekhiñe Mendi Altubek azaldu duenez: "Atal teknikoez gain, horrelako espazioetan ohiko erabiltzaileak direnen testigantzak ere jaso zituzten, hala nola haurrena eta nerabeena, zaintzaileena eta hezitzaileena. Eta ondorioztatu zen 0 eta 3 urte artekoendako espazio falta badagoela herrian".

Jolasguneak, jolasteko espazioak izateaz gain, heztekoak ere badirela gaineratu du Mendik, eta, espazio berri "berdinzaleagoa" diseinatzeaz gain, "naturarekin harremanetan jartzeko aukerari garrantzi berezia" emanda proiektatu dutela.

Egingo duten espazio hori hiru gunetan banatu dute; gune bakoitzak aukera ezberdinak eskainiko ditu, umeen adin tarteei, interesei eta gaitasunei erantzuteko helburuarekin. Zenbait lur mota konbinatuko dituzte: adibidez, batetik, adin tarte horretan hasten direlako umeak oinez ikasten eta gorputz mugimenduak garatzen; eta, bestetik, material bakoitzaren testura ere izan daitekeelako umearendako ikasgai, jolasetarako, ariketa fisikorako, psikomotrizitatea lantzeko, atsedengunerako eta esperimentatzeko baliagarria izateaz gain. Hain zuzen ere, funtzio horiek lantzeko aproposak diren elementuak txertatu dira gune hartan. "Gizartea aldatzen doan heinean ari dira umeen beharrak ere aldatzen. Horrela, euren espazio hauek ere moldatu egin beharko dira momentuko beharretara", dio Mendik.

> Gune bakoitzak askotariko aukerak eskainiko ditu umeen adin tarteei, interesei eta gaitasunei erantzuteko

LEHENGOEN ONDOAN

Gaur egun San Lorentzoko jolasgunean dauden elementuen ondoan jarriko dituzte berriak, besteak kendu gabe. Proiektua eginda dute, nahiz eta aldaketak izan ditzakeen, ez da-eta behin betikoa. Iñigo Ruiz Barron Hirigintza batzordeburuak aurreratu du hurrengo pausoa obraren kontratazioa egitea dela. Urtea bukatu aurretik egin gurako luke hori Udalak, eta hurrengo datorren lehen hiruhilekoan hasi lanak egiten. Epeak, baina, aldatu egin daitezke.

Behin lan guztiak bukatuta, 0 eta 3 urte arteko umeek jolasteko eta hezteko gunea izango dute San Lorentzon, esperimentazioen bitartez euren autonomia garatzen laguntzeko.

Akizu, Jimenez, Lauzurika eta Ruiz, Urgaineko jolasgune eraberrituan. KONTZEJUPETIK

Bigarren faseko lanak bukatuta, Urgaineko gunea jolasgarri dago

Harmailak sortu eta kantxa eremua berrasfaltatzeaz gain, Oñatiko Udalak lanak egin ditu iturria egokitzeko, euri-uren sarea eraberritzeko eta lorategi zein berdegunea hobetzeko. Errekaldeko jolasgune hori erabilgarri dago herritar guztiendako

Bigarren faseko lanak bukatu berri ditu urrian Oñatiko Udalak Urgaineko jolasgunearen eraberritzean, eta gunea erabilgarri dago herritarrentzat.

JOLASAK ETA HIRIGINTZA

Era askotako lanak eta hobekuntzak egin dituzte Errekaldeko jolas gune horretan azken hilabeteetan. Horien artean, adibidez: harmailak sortu, argiteria publikoa berritu eta kantxa eremua berrasfaltatu; eta horrekin batera, iturria egokitzeko, euri-uren sarea eraberritzeko, sarrera berri bat sortzeko eta lorategia zein berdegunea hobetzeko lanak egin dira –kimatu, lur berria bota, ereite lanak...–. 244.000 euroko aurrekontua izan du bigarren fase horrek –BEZa barne–, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren dirulaguntza jaso du eraberritze horretarako. Horrekin batera, orain-dik argitaratu barik dagoen Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren dirulaguntza deialdira aurkeztea ere bada Oñatiko Udalaren asmoa.

Oñatiko Udalak herriko jolasguneen sarea hobetzen dihardu azken urteetan, horiek unean uneko beharretara eta ereduetara moldatzen. Urgainen egindako esku hartzea bide horretan doa. "Helburua da herriko txikienak naturarekin lotuko dituen jolas eremu inklusibo eta komunitarioa eskaintzea, berdea, berritzailea...", Udaleko Hezkuntza batzordeburu Asier Lauzurika Arrondok azaldu duenez. Horrez gain, esperimentazio zuzenaren bidez ikasteko testuinguru bizia eskaintzea ere badu xede proiektuak. "Eskola orduetan Urgainekoek erabiliko dute, baina herritar guztiek erabiltzeko jolasgunea da. Asteburuetan eta eskola ordutik kanpoko edozein momentutan, guztiendako egongo da erabilgarri. Herritarrek jolas egiteko, sozializatzeko eta aisialdiaz gozatzeko gune bat dute hor".

Urgain eskolakoak ere pozik daude egindako eraberritze lanekin. Diote ume guztiendako moduko jolasak daudela, eta, jolastuz ikasi ere egiten delako, esperimentatzeko aukera ere ematen duela guneak.

HIRUGARREN FASEA FALTA

Lur Paisajistak enpresak egin du eraberritze osoaren proiektua, eta hiru fasetan egitea planteatu zen. Lehen biak egin dira eta hirugarrena falta da orain. "Guztientzako leku atsegina sortu gura izan da. Egokituriko berdegunea eta harmailak, esaterako, oso lagungarri dira horretarako, eta espazioaren erabilgarritasuna eta erabilera indartzeko aukerak sortzen ditu", gaineratu du Lauzurikak.

"Herritarrek jolas egiteko, sozializatzeko eta aisialdiaz gozatzeko gune bat dute hor"

ETXiAN Inmobiliaria
Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73
ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

%2,51 igoko dira udal tasak eta zergak datorren urtean, orokorrean

"**Kalitatezko zerbitzu publikoak** ematen jarraitzeko" eta "**egoera zaurgarrian daudenei** laguntzeko" neurri moduan proposatu du %2,51ko igoera orokorra Udal Gobernuak. Hondakinena da salbuespena, **%33,6 igoko da** eta, Europatik etorritako legearen ondorioz. 2025eko **urtarrilaren 1ean** aplikatuko dira hurrengo urteko tasak

Urriaren 24ko osoko bilkuran onartu ziren 2025eko udal ordenantza fiskalak. KONTZEJUPETIK

Urriko osoko bilkuran onartu ditu datorren urteko udal ordenantza fiskalak udalbatzak, ohikoa den moduan. Horrela, udal tasa eta zergek %2,51ko igoera orokorra izango dute. Salbuespenen artean, zaborren eta hondakinen gainekoa aipatu behar da: %33,6 igoko da zerga hori.

Europako legediaren arabera zaborren gaia ezin da defizitarioa izan udalarendako; tarifek, gutxienez, udalak zerbitzua emateagatik dituen gastuak estali behar dituzte. Eguneraketa hori udal guztiek egin behar dute, derrigorrean, baita Oñatikoak ere. Horri lotuta, kontu hartzaileak aurkeztutako txostenean jasotako igoera onartu dute alderdiek. Hau da, 168,12 eurotan finkatzea zabor eta hiri hondakin solidoak etxez etxe biltzeagatik oinarrizko tasa, eta portzentaje bera (%33,6) ezartzea gainontzeko zabor eta hiri hondakin tasei. Udalak gogorarazi du hondakinen tasan %25eko hobaria dagoela auzo-konposta egiten dutenendako.

Hondakinena Europatik datorren legediaren ondorioa da; Oñatin %25eko hobaria dute auzo-konpost egileek

Zubikoako tasen muga 22 urtean mantentzen da; laguntzak daude sarrerarik ez duten nagusiagoentzat

KPI-A KONTUAN

EH Bilduren Udal Gobernuak 2025ean eta datozen urteetan ere "kalitatezko zerbitzu publikoak ematen" jarraitu gura duela azpimarratu zuen ordenantza fiskalak onartu ziren osoko bilkuran. Bestetik, "orain arte moduan, egoera zaurgarrian dauden eta behar handiena duten herritarrei zein herriko hainbat elkarteri dirulaguntzak ematen" jarraituko dutela baieztatu zuten, eta, bide horretan, "arduraz eta denboraz" landuriko ordenantza proposamena izan dela azpimarratu zuten. Horrela, "lurraldearen egoera ekonomikoa aztertuta", 2023ko irailetik 2024ko irailera bitartean Kontsumo Prezioen Indizeak egindako %2,51eko igoera hartu du oinarrian Udal Gobernuak udal zergen eta tasen igoera orokorra finkatzeko. "Uste dugu ordenantzetan KPIaren igoera jasotzea jarrera arduratsua dela, gogorarazi gura bainuke zerga edo tasa horiei loturiko zerbitzuen kostuek ere gora egin ohi dutela. Izozteak eragina izango luke zerbitzuen kalitatean, dirulaguntzak eskaintzeko gaitasunean eta abar", azaldu zuen alkateak, Izaro Elorza Arregik. Jeltzaleen proposamena, bestalde, orokorrean tasek igoerarik ez izatea izan zen, "hondakinena handia delako".

Udaleko batzordeetatik jasotako proposamen txikiekin "ordenantzetako puntuak osatu, hobetu eta eguneratu" egingo direla esan zuen Elorzak, eta gaineratu oposizioaren adostasuna jaso dutela Udaleko Zerbitzu, Kultura, Gazteria, Gizarte Zerbitzu, Ingurumen, Hirigintza, Berdintasun eta Kirol departamentuei loturiko proposamen txiki horietan. EAJko udal ordezkariek egindako proposamenak aztertu dituztela adierazi zuen segidan alkateak, eta horietako bi, "iazkoaren berdinak, ondo ikusi ez genituenak eta aurten ere ondo ikusi ez" dituztenak. Hain zuzen ere, hu-

Zubikoa kiroldegiaren sarrera. KONTZEJUPETIK

tsik dauden etxebizitzen errekargua kentzea izan da jeltzaleen proposamena, "alokairua sustatzeko zuen helburua lortu ez duelako". Gobernu taldeak, aldiz, mantentzearen alde egin du, eta jarri zenetik etxe hutsen kopurua %36,7 jaitsi dela esan: "2013an 449 errekargu bideratu ziren; 2024an, 284. 165 etxe huts gutxiago".

Bestetik, kiroldegiko tasetan jarritako muga 22tik 25era igotzeko jeltzaleek berriz egin duten proposamenari erantzunez, muga bere horretan mantenduko da: "Orokorrean, horixe da lan mundura salto egin ohi den adina, nahiz eta geroago egiten duten herrikideak ere baditugun. Dena den, gogorarazi gura genuke horiek diru sarrerarik ez badute badaukatela hobariak eskatu eta eskuratzeko aukera. Muga 25 urtera igoz gero, gerta liteke diru sarrera handiagoa dutenek txikiagoa dutenek baino gutxiago ordaintzea, duten adinagatik bakarrik. Uste dugu hori ez dela bidezkoa". Bestalde, EAJren partetik auto elektrikoa kargatzeko gunea duten eraikinei ondasun higiezinen gaineko zergan %50eko hobaria ezartzeari buruz, gobernu taldeak ez du egokia ikusi "etxebizitzei dagokien zerga auto elektrikoarekin lotzea", eta gogora ekarri dute "EH Bilduren ekimenez auto elektrikoa dutenei dagoeneko %75eko hobaria" aplikatzen zaiela trakzio mekanikoko ibilgailuen zergan.

BALDINTZAK AZTERGAI

Oposizioak egindako beste bi proposamen, baina, ordenantzetan sartu dituzte: hutsik egon diren etxeak alokairura bideratzeko egin nahi diren obren gaineko zergei %90eko hobaria aplikatzea eta ikastaro eta matrikulen tasei loturik egungo multzokatze era aldatzea. Baldintzetan, baina, ez dira ados jarri alderdi biak, eta banakako bozketan abstenitu egin ziren jeltzaleak puntu horietan. "Gure proposamenak egia bihurtzeko zailtasuna agerikoa da. Bi taldeek udalerriaren arazo larriei irtenbidea eman diezaieketen proposamenekiko duten ikuspegiari EH Bilduren Udal Taldearen jarrera gehitu behar zaio; akordiorik ez lortzekoa, hain zuzen", dio Amaia Erostarbe Letamendi zinegotzi jeltzaleak.

500 euroko lau sari emango ditu Txandak, egun bakarrean gastatzeko

Txanda elkarteak 500 euroko lau sari zozketatuko ditu azaroaren 20ra bitartean erosketak herrian egiten dituzten bezeroen artean. Sariak 50 euroko erosketa-txarteletan emango dituzte eta, gutxienez, elkarteko lau establezimendu desberdinetan trukatu behar izango ditu irabazleak, egun bakarrean. Diru guztia egun batean bakarrik gastatu beharko du saridunak eta erosketa horiek Algaraz ikuskizun elkarteak lagunduta egingo ditu.

Zozketan parte hartzeko, bezeroek erosketen txartelak kutxetan sartu beharko dituzte euren izen-abizenak eta telefono-zenbakia jarrita. Parte hartzeko azken eguna azaroaren 20a izango da eta zozketa hurrengo egunean egingo dute. Azaroaren 21ean irabazleek dei bat jasoko dute sarituak izan direla jakinarazteko. Sari banaketa eta gastatzeko eguna azaroaren 23an izango da, 09:30ean, plazan.

Zabalik dago 'Bertakoak' guneetarako txartel berriak eskatzeko epea

Bertakoak guneetan txartel berria eskatzeko epea hilaren 20ra arte dago zabalik. Kontu korrontearen zenbakia eta autoaren zirkulazio-baimena aurkeztu behar dira horretarako, HAZ bulegoan edo online, erregistro elektronikoa erabilita. Baja emateko, nahikoa da eskaera egitea.

Bertakoak aparkalekuak Bidebarrieta kalean. KONTZEJUPETIK

Elikaenea proiektua ezagutzeko bisitan izan dira EH Bilduko kideak

Elikadura burujabetza helburu duen Bergarako Elikaenea proiektuaren sorrera, garapena eta irekiera zelan gauzatu diren lehen eskutik ezagutzeko aukera izan dute EH Bilduko bailarako kideek, koalizioak otsailean martxan jarri zuen *Debagoiena geuretik loratzen* egitasmoaren barruan.

Oñatiko EH Bilduko ordezkariak, Bergaran egindako bisitan.

Mikeletetxekoarekin, hiru dira Udalak anfibioendako egindako hezeguneak

Mikeletetxeko anfibioen putzua. OÑATIKO UDALA

Anfibioendako putzu berria du Oñatik, Mikeletetxen. Horrekin hiru dira Udalak anfibio, ornogabe urtar eta abarrentzat sortutako biotopo eta mikrohezeguneak. Aurrenekoa Olapoto basoan egin zen, Natur Eskola inguruko udal lursailean, Oñatiko Udalak Aranzadiri emandako ingurumen bekaren testuinguruan. Gero, Belatxara gainaldean egin zuten beste bat. Mikeletetxekoa, egin den azkena da.

Mikeletetxeko putzua, "garai batean basoko suteei aurre egiteko ur-putzu zaharkitua" zegoen tokian egin dute. "Gaur egun erabilerarik gabeko putzua zen, eta beste erabilera bat emateko aproposa. Gainera, bizidunendako arriskua zen, inoiz animaliak bertara jausi eta irten ezinik geratu baitira, eta, hala, bertan bizidunendako babeslekua sortzea erabaki da", azaldu dute Oñatiko Udaleko Ingurumen sailetik. Lanok abuztuan egin zituzten.

BABES KLIMATIKOA

Anfibioen putzu edo mikrohezegune horiek baldintza egokiak eskaintzen dituzte anfibio espezieen garapenerako. "Gainera, krisi klimatikoaren egungo egoeran, putzuak eta beste hezegune txiki batzuk biotopo –espezie baten garapenerako baldintza egokiak biltzen dituen espazioa– bereziki kaltederak dira, eta desagertzeko bidean daude. Horregatik dira baliabide erabakigarriak eta baita babes klimatikoa ere, bai haiekin zuzenean lotutako espezieentzat –izan anfibio zein ornogabe urtarrak–, bai beste askorentzat", azaldu dute Aranzadi Zientzia Elkartekoek.

Auzoaren izena eta armarria dituen 3.500 kiloko harlandua du Zubillagak

> Nafarroako Zizur Nagusiko enpresa itxi berri batean aurkitu zuten harria
> 'Zubillaga' hitza eta armarria ditu zizelkatuta, eta urriaren 20tik Zubillagan da

Zizur Nagusian negozioa itxi zuen enpresa bateko lokal batean aurkitu zuen jabe berriak harritzarra. *Zubillaga* hitza eta armarri bat zituen zizelkatuta, eta bilatzeari ekin zion Pedro Ciak, orain Oñatin dagoen harri-puska aurkitu zuenak. Jabetu zen berehala Oñatiko Zubillaga auzokoa zela harlanduak zeraman armarria, eta Oñatiko Udalera deitu zuen orduan. Uda aurretik izan zen hori. Udala auzotarrekin jarri zen harremanetan, eta urriaren 20a ezkero, hainbat gestioren ondoren, Zubillagan da harlandua, eskola aurreko zelaian. Pedro Ciak dohaintzan eman du eta Oñatiko Udala egin da dohaintzaren izapideen kargu. 3.500 kiloko harria Oñatira ekartzeko gestioak auzotarrek egin dituzte, baita 2x2 metroko oinarri bat ere, hura gainean jartzeko. Ekarri ere auzotarrek ekarri zuten, kamioi batean, eta urriaren 20an jarri zuten denen bistara, festa giroan eta auzotarrekin egindako ekitalditxoan.

Harlandua, Zubillagan. KONTZEJUPETIK

JATORRIAZ EZER GUTXI

Harriaren nondik norakoez gutxi dakite auzotarrek; bertako nagusiek ere ez dute harri puska gogoratzen. Auzo-alkate Iker Loitik onartu du ez dakitela zein den haren jatorria, baina auzoan badagoela jakin-mina eta ikertzen jarraituko dutela: "Oraindik ez dakigu arrazoia. Antza, itxi zen enpresa hark harginen lanak egiten zituen, eta Zubillaga abizena zuen jabeak; litekeena da hark landutakoa izatea. Ez dakiguna da, ordea, nola edo noiz iritsi zen pertsona hura Zubillagara eta auzoko armarria ikusi. Izan ere, garbi dago auzoarena dela landuta dagoen armarri hori; horrelakoxe armarria dugu, esaterako, elkarte gastronomikoan, basurde eta guzti".

Tokiko administrazioaren eta herritarren arteko lankidetzaz aritu da Izaro Elorza

Arantzazulabek antolatutako Demokraziaren Berrikuntza jardunaldietan izan da Elorza

Demokraziaren Berrikuntza jardunaldiak egin dituzte urrian Bilbon eta Arantzazun, Arantzazulabek antolatuta. Jardunaldien lehen edizioa izan da eta *Berrikuntza eta diseinua demokrazia indartzeko erronka konplexuen egungo testuinguruan* lelopean egin dute. Hainbat helburu izan dituzte: gaia eztabaida publikora eramatea eta demokraziaren berrikuntzaren esparruan gogoeta partekaturako espazio bat sortzea. Nazioarteko puntako hizlarien eskutik askotariko gogoetak sustatu dira jardunaldietan, eta gonbidatu berezi bat ere izan da, Adam Kahane, Kanadako Reos Partners erakundeko zuzendaria eta pentsalaria eta hainbat bestsellerren idaztea.

Izaro Elorza Arregi alkatea, Arantzazun. ARANTZAZULAB

TOKIKO ESPERIENTZIAK

Nazioartekoez gain, tokiko hainbat adituk ere hartu dute parte jardunaldietan; haien artean, Oñatiko alkate Izaro Elorza Arregik. Hain justu, gobernuen eraldaketarako eta berrikuntzarako eta gizartearen aktibaziorako tokiko esperientziak partekatzeko saioan hartu zuen parte. Bertan, toki administrazioek herritarrekin dituzten lankidetzazko praktikak izan zituen berbagai, eta tokiko administrazioek herritarrekin loturak egiteko dituzten baldintzak ere bai. Alde horretatik, lotura horiek egiteko aukerak nabarmendu zituen, adibidez, eta baliabide horietan dauden mugak ere gizarteratu zituen.

Material bilketa solidarioa egingo du Aloña Mendik azaroaren 30ean herriko plazan

Larrañako egoitzan dauden errefuxiatuei laguntzeko kanpaina berezia egingo du azaroan Aloña Mendik, Zeharekin elkarlanean. Material bilketa azaroaren 30ean egingo dute, zapatua, eta 11:00etatik 14:00etara ibiliko dira materialak jasotzen, plazan. 75. urteurrena ospatzen dabil kirol kluba, eta kanpaina solidario hori izango da ospakizunen barruan egingo duten azken ekintza. Jasoko duten materialari dagokionez, honako hauen beharra dutela jakinarazi dute: batetik, oinetakoak –41 zenbakitik gorakoak–, helduentzako txamarrak, era guztietako prakak –motzak, luzeak...– eta kirol jertseak edo sudaderak. Larrañan dauden errefuxiatuekin elkartasuna adierazteaz gain, Hotz Oñatiko ordezkariei merchandising kanpainatik jasotako ekarpenaren txekea entregatuko zaie egun horretan.

7.260 kilo janari batu ditu Hotz Oñatik

Zaporeak elkartearendako elkartasun janari bilketa egin du urrian Hotz Oñatik herriko janari-dendetan. Guztira, 7.260 kilo batu dituzte. Horietatik 30 kilo, barratxo zerealdunak, *Aita Mari* itsasontzira bidali dituzte, eta gainerako 7.230ak Zaporeak elkartera bideratu dira. Deialdiak izandako erantzunarekin oso eskertuta daude Hotz Oñatiko kideak.

HOTZ OÑATI

100 urte bete ditu Saratxok energia berriztagarria sortzen

Saratxoko azpiegiturak 100 urte bete ditu martxan, 1924ko urriaren 18an hasi baitzen Olateko gunera ura eroaten. Sorburutik gorantz doan hoditeria, Araotz zeharkatzen duen tunela eta 220 metroko ur-jauzia dira haren berezitasunetako batzuk. Urtean 1.802 MWh sortzeko gaitasuna du

Saratxoko azpiegitura egiteko lanak, duela 100 urte baino gehiago. OÑATIKO UDAL ARTXIBOA

Oñatin energia hidroelektrikoa sortzen duen sei ur-jauzietako bat da Saratxo. Olate gunea osatzen duenetako bat, Zapata, Jaturabe eta Arantzazurekin batera. Gainerako bi guneak Tokillo eta Urdaola dira. Saratxokoak urtemuga berezia ospatzen du aurten. 1924ko urriaren 18a baitzen Saratxoko hoditeria berria ura Olatera eramaten hasi zenean. 100 urte bete berri, beraz. Mendi barreneko iturburuetatik datozen urak jaso eta Olatera eramaten ditu Saratxok; zehatz, Degurixako urak dira 100 urteko azpiegiturak Olatera eramaten dituenak. 220 metroko saltoa du. Ez da Oñatik duen ur-saltorik handiena, hori Haitzgainekoak baitu: "Gipuzkoako ur-saltorik handiena Haitzgainekoa da, guztira 460 metro", azaldu du Artixa Elkarteko Tomas Igartuak. "Halere, Saratxokoa ur emari handiko eta konstanteagoko iturburua da", gehitu du.

OBRA BEREZIA

Guztira urtean 1.802 MWh sortzeko gaitasuna du. Baditu azpimarra jartzeko moduko bi berezitasun: bata, haitzetik ateratzen den hodiak gorantz egiten duela behera beharrean; alegia, sorburutik goraka doan ubidea duela. Eta hori duela 100 urteko ingeniaritzan arraroa zen. Bigarrena, haitzean zulatutako tunela. Ubideak 1.674 metro ditu guztira eta horietatik 1.000, alegia, kilometro bat, haitzean zulatutako tunel batetik igarotzen da. Ingeniari frantziarren lana izan zen Saratxoko ubidea, nahiz eta lanean araoztar ugari ibili ziren. Jose Angel Urkia araoztarrak baditu obra haren gaineko xehetasunak: "Saratxoko kanaleko tunela Urrexolako haitzetik barrena zulatu zutenean, frantziar ingeniariak kanala bi aldeetatik zulatzea proposatu zuten. Araoztar baserritarrek pentsatu zuten ingeniariak erotu egin zirela, bi tunelek ez zutela inoiz bat egingo. Baina bat egin zuten, eta altueran 0,5 metroko okerrarekin bakarrik. Harrezkero, ingeniari frantsesak 'oso listuak' direla esaten zuten Araotzen", azaldu du.

Ubideak 1.674 metro ditu guztira, eta horietatik 1.000 haitzean zulatutako tunel batetik doaz

Haitzetik ateratzen den hodiak gorantz egiten du behera beharrean; sorburutik goraka doan ubidea du

UNION CERRAJERAK EGINA

Saratxoko azpiegitura Union Cerrajera SA enpresak egin zuen. Urte batzuk lehenago, zehazki 1911n, Union Cerrajerak Biain y Cia konpainiari Olateko zentrala erosi zion. Izan ere, gaur egun ere herriari argia ematen dion enpresa hiru oñatiarren obra izan zen. Hipolito Biainek,

Juan Zubiak eta Enrique Uriartek Biain y Cia enpresaren bitartez ekin zioten Olateko zentralaren esplotazioari, 1889an. Oñatirako indarra sortzeko eta etxe eta kaleak argiztatzeko Gipuzkoan erregistratutako bigarren argindar enpresa sortu zuten haiek. 1889an Olateko zentrala esplotatzeari ekin eta urte gutxira jarri zituzten martxan Ubaoko, Tokilloko, Lamiategiko eta Jaturabeko proiektuak, eta, geroago, 1911n, Union Cerrajerak horiek guztiak erosi zituen, Arrasateko eta Bergarako Labegaraietako lantegietara indarra eramateko. Gaur egun, Oñatiko Ur Jauziak SA herriko ur-salto hidroelektrikoak kudeatzen dituen Oñatiko Udalaren enpresa da. Oñatiko Udala da akziodun nagusia, %81ekin. Gainerakoak EEE (%9) eta Goiener (%10) dira.

Saratxoko hoditeria, gorantz. KONTZEJUPETIK

Saratxoko ubidea mapan kokatuta. KONTZEJUPETIK

Saratxoko ubidea. KONTZEJUPETIK

Hasi dira Sancti Spiritus Unibertsitatea eraberritzeko lanak

Hasi dira Sancti Spiritus Unibertsitatea eraberritzeko lanak. Datozen urteetan egingo diren esku hartzeetan lehena da honako hau. Zehatz esanda, fatxada nagusiaren eta klaustroko lau fatxaden altxaera ortofotografikoa egingo da, erliebeak, dorreen edo kontrahormen alboak, horma-hobiak eta irudiak barne.

Dominguez eta Elorza.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak bideraturiko lan horiek zaharberritzeko proposamen tekniko baten barruan sartzen dira, eraikin historiko horretan egin beharreko esku-hartzea zehaztasunez eta xehetasunez definitzeko. Beraz, esku-hartze gehiago aurreikusten dira aurrera begira, Oñatiko Udalak bultzaturiko Turismo Bulego berria eta ikasketa gelak barne.

Izan ere, Oñatiko Unibertsitatea herriratzeko lanean da Oñatiko Udal Gobernua azken urteetan, eta laster abiaraztea espero duen bi proiektu ditu mahai gainean: Turismo Bulegoa unibertsitatera lekualdatzea eta ikasketa-gelak egitea. "Horrekin, unibertsitatearen berezko izaera eta balioa indartu egingo dira, behar moduko erantzuna emateko herriko zenbait beharri eta erabiltzaileen profila zabaltzeko. Finean, espazioaren erabilgarritasuna handitu egingo da, eta eguneroko erabilera natural bat ahalbidetu", azaldu du Izaro Elorza Arregik, Oñatiko alkateak.

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus

Azaleko argazkia: Kontzejupetik.

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:
Oñatiko Udala
Zuzendaria:
Iñigo Arregi
Maketazioa:
Abao Komunikazio Agentzia
Kolaboratzailea:
Euskaltegia
Inprimategia:
Gertu
Tirada:
5.500 ale
Lege gordailua:
SS-357/91

Posta-e:
kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea:
publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

OÑATIKO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

IRAILAREN 20KO EKITALDIA IRAGARTZEKO BIDEOAREN HARIRA BARKAMEN ESKAERA

ALOÑA MENDI KE eta 75. URTEURRENEKO LANTALDEA

Gogoan izango duzuenez, joan den irailaren 20an, Aloña Mendi KEren 75. urteurrenaren testuinguruan elkarteko 14 sailen aurkezpen ekitaldia izan zen herriko plazan, eta, KONTZEJUPEtik aldizkarian agertu zen bezala, jai potoloa antolatu nahi izan genuen.

75. urteurreneko lantaldea osatzen dugunoi ekitaldi hori iragartzeko bideoa egitea aproposa iruditu zitzaigun, eta horixe egiteko eskatu genien Dwingi-Dwingi taldekoei. Baina argi adierazi nahi dugu ez Aloña Mendi KE osatzen dugunon aldetik, ez 75. urteurreneko lantaldekoon partetik, ez bideoa egin zutenen aldetik ez dela egon, inondik inora, gizentasunaren edo lodifobiaren kontura iseka, barre edo txantxa egiteko asmorik.

Oñatiko Sare Feministako hainbat kidek jakinarazi ziguten, hala ere, egoera zaurgarrian egon daitezkeen herritarrentzat mingarria izan daitekeela bideoa. Hala jakinarazi ziguten, hain zuzen ere, ohar baten bidez aurrena eta aurrez aurrez ondoren, urriaren 15ean taldeko kide batzuekin egin genuen bileran. Horregatik, eta zintzotasun osoz, barkamena eskatu nahi diegu bideoa zabaldu ondoren minduta sentitu diren guztiei. Doakie gure barkamen eskaerarik sentikorrena. Argitu nahi dugu egoera horren berri jaso bezain pronto, urriaren 5ean bideoa sare sozialetatik erretiratu egin genuela.

Berriro diogu: ikus-entzunezko horren helburua ez zen inor mintzea, ez inor iraintzea. Elkartearen 75. urteurrenaren harira antolatu ditugun ekintzetan ekarpen soziala, parekidetasuna, jasangarritasuna, elkartasuna eta errespetua izan ditugu ardatz. Eta horiei eusten diegu, kasu honetan huts egin badugu ere. Aitortzen dugu: ez gara gai izan egoera zaurgarrian egon daitezkeen horien larruan jartzeko, eta zinez sentitzen dugu.

Hori dela eta, datozen hilabeteotan antolatuko ditugun jarduera edo ekintzetan, eta gure norbanako ekintzetan, saiatuko gara gure begirada zabaltzen eta inor ez bazter uzten.

OHAR ETA DEIALDIAK

Neguko ordutegia

Azaroaren 1etik, neguko ordutegia du Arantzazura doan Herribusak. Arantzazura joateko azken autobusa 17:30ean irtengo da herrigunetik eta Arantzazutik, jaisteko, 18:00etan. Goizeko ordutegiak mantendu egiten dira: 07:30ean Oñatin eta 08:00etan Arantzazun.

Kantu Eskolaren deialdia

Ganbara Kantu Eskolak XX. urteurrena betetzen du aurten eta abeslari ohi guztiekin kontzertu bat egingo du abenduaren 14an. Parte hartu gura duen abeslari ohi horiendako helbide bat ahalbidetu dute. Azaroaren 15a aurretik helbide horretara idatzi beharko dute interesatuek euren parte-hartzea baieztatzeko: *idazkaritza.ganbaratxiki@gmail.com*.

ARAZERIXAN

Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> LAGUNARTEKO ZUBIAK: INTEGRAZIOA KOMUNIKAZIOAREN ETA SORMENAREN BIDEZ <<

Oñatin etorkinen haurren egokitzapena eta integrazioa sustatzeko proiektu bat abiarazi da. Helburua kultura eta gizarte elkarreragin arrakastatsu baterako baldintzak sortzea da, haurrei gizarte berrian seguru senti daitezen lagunduta.

Gaztelekuan egiten dira jarduerak, gazteentzako zentroan, non gazteek tailerretan, jokoetan eta hezkuntza-programetan parte hartzen duten.

Proiektua Elvira Chebotarevak gidatzen du, eta, lerro hauek aprobetxatuz... "Eskerrak eman nahi dizkiet proiektu hau errealitate bihurtzen lagundu duten guztiei: Udaleko eta Gaztelekuko langileei, boluntarioei eta Oñatiko herritarrei," dio Elvira Chebotarevak, proiektuaren sortzaileak: "Ekimen honek haurrei gizartean beren lekua aurkitzen eta bertako kulturarekin lotura indartzen laguntzen die".

>> GAZTELEKUKO KONTZERTU DENBORALDIA HASI DA <<

Verduri Hall Gaztelekuko udazken eta neguko denboraldiko kontzertuak ere prest ditugu urtarrilera bitartean, eta sarrerak salgai daude Txokolateixan eta *onati.eus* webgunean.

Denboraldiaren irekiera urriaren 19an izan genuen, Olatz Salvadorren *Zainak eman* diskoko estreinako kontzertuarekin; ondoren, Oñatiko Mila Modu taldea *matinée* kontzertuetako lehen saioan izan genuen hilaren 27an. Hemendik aurrera datozen kontzertuei dagokienez, azaroaren 9an Anker eta Anestesia taldeek metal soinuz beteko dute Gaztelekua. Abenduaren 1ean, aldiz, Idoia Asurmendi bakarlari aramaioarra bere azken lanarekin etorriko da Oñatira.

2025a indartsu hasteko, Ane Arruti abeslari zarauztarrak eta taldekide oñatiarrek osatutako Keia taldea *Zamalanak* izeneko azken lanarekin etorriko dira Verduri Hallera. Haiekin batera, Mutrikuko Delirium Tremens taldea izango dugu gurean; 1991tik 2022ra egindako geldialdiaren ostean indartsu bueltatu direla ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 11an. Lan berria aurkeztuko dute.

Azkenik, etxeko txikienekin ere ez gara ahaztu, eta abenduaren 29an, *Go!azen 11.0*-ko protagonistak Santa Ana aretoan izango ditugu arratsaldeko bostetan eta zazpietan. Gogoratu, *oñati.eus*-en dituzue emanaldi guztien sarrerak salgai.

AGENDA KUBOA:

- Azaroaren 2an, **kuboko pilota txapelketa.** - Azaroaren 8an, **Zorotxo konpartsaren bisita kubora.**
- Azaroaren 16an, **pizza lehiaketa.**- Azaroaren 17an, **ginkana mitologikoa**. - Azaroaren 23an, **madalena txapelketa.**

AGENDA GAZTELEKUA:

- Azaroaren 12an, **sormen dirulaguntzak eskatzeko epea bukatzen da.**
  Hau da, diskoak, komikiak, liburuak, ikus-entzunezkoak eta abar sortzeko gazteei zuzendutako dirulaguntzak.
- Azaroaren 24an, **Oñatiko Gaztelekuko 30. Xake Txapelketa.**

AGENDA TOPALEKUA:

- Urriaren 31n eta azaroaren 1ean, **Gau Baltza.**

"Jende askok galdetu dit ea prest nagoen aurpegi ezagun izateko"

ANDER MURILLO ASTIGARRAGA
AKTOREA

Txikitatik egon da antzerkiari lotuta Ander Murillo. Oñatiko Irazan antzerki taldean hasi zen, eta EITBko *Go!azen* telesaileko azken denboraldian parte hartu du orain.

Nolakoa izan da *Go!azen* telesaila grabatzea?
Sekulakoa izan da. *Beita* websaila eginda neukan lehenago, nik lagun batzuekin batera idatzi eta ekoitzitakoa, orain Gazteako Youtube irratian dagoena. Baina hori guk egindako gauza bat zen. Horrelako ekoizpen handiko proiektu batean ez dut inoiz parte hartu *Go!azen*-en aurretik, eta beldur pixka batekin hartu nuen hasieran. Hala ere, pausoa ematea erabaki nuen, eta, egia esan, sekulako esperientzia izan da. Hasieratik oso harrera ona izan dut lankideen artean, eta oso pozik nago.

Nolakoa da zure pertsonaia?
Nire pertsonaia, Manex, protagonistetako baten anaia txikia da. Oso lotsatia da, baina, aldi berean, ona eta maitabera.

Zer lan egin duzu pertsonaia hori prestatzeko?
Castingerako maiatzeko azken astean deitu zidaten, eta grabaketak ekainaren erdialdean hasi ziren. Gainera, bi aste haietan egin genituen argazki-saioak, bideoklipak, koreografien entseguak eta abar. Ez nuen denbora askorik eduki pertsonaia lantzeko. Baina ulertu nuen gutxi gorabehera Manex barrutik nolakoa den: oraindik bizitza ulertzeko puntu batzuk falta zaizkiola ikusi nuen, eta ikuspuntu horretatik interpretatu dut pertsonaia.

Ander Murillo, *Go!azen*-eko aurrestreinaldian. ANDER MURILLO

Ezberdina izan da beste batek sortutako pertsonaia bat interpretatzea?
Bai. Orain arte interpretatu ditudan pertsonaia guztiak nik sortu ditut: nik eman diet izaera, itxura... Eta orain, beste pertsona batek sortu du. Beraz, niretzako beste erronka bat da. Nik sortzen dudanean hasieratik dakit zer nahi dudan, baina oraingoan, gidoia irakurtzean asmatu behar izan dut bere pentsaera nolakoa den, hura nola bizi den...

> "Maitasun istorio berriak egongo dira denboraldi honetan, baita bikote komiko berri bat ere"

Estreinaldirako gogotsu zaude?
Beldur apur bat ematen zidan hasieran, baina Zinemaldian lehenengo kapitulua estreinatu genuen eta jendeak oso-oso harrera ona egin zion. Manexen pertsonaia asko gustatu zitzaion jendeari, baita kapitulua ere. Neuk, normalean, neure burua asko epaitzen dut, baina, egia esan, kapitulua gustura ikusi nuen, eta neure buruarekin gustura geratu naiz. Uste dut harrera ona edukiko duela.

Ezagunagoa izango zara orain, telesaila emititzen denean.
Orain arte egin ditudan pertsonaia guztiak aurpegia estalita egin ditut, mozorrotuta. Beti gustatu izan zait mozorrotuta nagoenean jendeak ezagutzea, baina mozorroa kendutakoan inork ez jakitea nor naizen. Orain, ordea, jende askok galdetu dit ea prest nagoen nire aurpegia ezaguna izateko. Eta ez dakit. Ez dakit nolako tsunamia ekarriko didan *Go!azen*-ek. Ez dakit prest egongo naizen, baina, aldi berean, gogoa dut hori zer den jakiteko.

Oñatin abenduaren 29an *Go!azen*-eko karaokea egingo dute; egongo zara zu ere?
Ez. Erizaina naiz, eta bira osoa egitea bateraezina da lanarekin. Agian, joango naiz ekitaldi batzuetara, sorpresaren bat ematera.

Ezer aurreratu dezakezu denboraldi berritik?
Maitasun istorio berriak egongo dira denboraldi honetan, baita bikote komiko berri bat ere. Hori esan dezaket.

Azaroko domeketan izango dira aurten ere Musikegunak zikloko kontzertuak

> **Musika klasikoa** izango dute oinarri, bakarkako zein taldeko emanaldietan
> Kontzertuak azaroko domeketan izango dira, **19:00etan, Santa Ana** antzokian

Azaroko igande guztietan egingo dira udazkeneko musika eskaintza osatzera datorren Musikegunak egitasmoko kontzertuak. Beste urtebetez, 46.a, musika klasikoa oinarri izango duten lau emanaldi antolatu dira, hilabete honetako domeka bakoitzeko bana.

Ahots grabeen Emagiyok abesbatzarekin hasi da aurtengo zikloa eta Xabier Zeberiorekin bukatuko da; *Pause* izeneko bakarkako lanarekin etorriko da Oñatira, bederatzi pieza berri jasotzen dituen albuma aurkeztera. Iñaki Palacios txistulari gasteiztarrak, berriz, *Argizaiola* lana erakutsiko du eta Bilbotik etorriko den Soinuak Haizean elkarteak, aldiz, zazpi emozio landuko ditu musikaren bidez, atrezzo koloretsuarekin.

SARREREN BONUA

Sarrera arrunta zazpi euro da bakoitzerako; lauretako bonua, 22 euro. Salgai daude *oñati.eus* atarian eta Txokolateixan.

Soinuak Haizean elkarteko kideak. 'SOINUAKHAIZEAN.COM'

Kontzertuen egitaraua

Azaroak 3
Eragiyok Abesbatza.
Ahots grabeen abesbatza.

Azaroak 10
Soinuak Haizean Elkartea.
"Emozioetan zehar bidaiatzeko kontzertu txundigarria".

Azaroak 17
Iñaki Palacios txistularia.
Argizaiola lana.

Azaroak 24
Xabier Zeberio.
Pause lana.

Onddoen gaineko hitzaldia eta gastronomia Arantzazun azaroaren 9an

Miko-poteo jardunaldiaren hamaikagarren edizioa egingo dute Arantzazun azaroaren 9an, larunbata. Oraingo honetan ere onddoen gaineko ezagutza eta produktu horrekin egindako pintxoak bateratuko dituzte.

Aurtengo ekitaldian Joxepo Teres Aranzadi Zientzia Elkarteko mikologia aditua izango da hizlaria. 17:30ean egingo du hitzaldia, Gandiaga Topagunean, eta ostean, 19:00etan, Arantzazuko gastronomia-zirkuituan barrena onddoz egindako pintxoen dastaketa-ibilbidea hasiko da, Zelai-Zabaletik Iraipe Arantzazuko Santutegia Hotelera eta handik Goiko-Benta eta Sindikara.

Miko-pintxo bakoitzak 1,5 euroko salneurria izango du, eta edaria ostatu bakoitzaren prezioen araberakoa izango da.

AUTOBUSA DOAN

Aurten doako autobus zerbitzua egongo da Oñatitik Arantzazura. Ordu erdian behin abiatuko da autobusa postetxeko geltokitik: 16:45ean lehen autobusa, eta 18:45etik aurrera bi geldialdi egingo ditu, bat Zelai-Zabal jatetxean eta bestea Santutegian. Bueltarako azkena 21:45ean aterako da Santutegitik.

Onddoekin egindako pintxoa.

JUANJE MARGOAK
627 818 247

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK
• Era guztietako garbiketak
• Jabegoen eta elkarteen administrazioa
• Konponketa orokorrak
GAKO
Garbitasunaren usaina
653 70 45 47
Oñati

'Zentzuekin gozatzeko' denboraldia aurkeztu du Oñatiko Musika Bandak

Denboraldi berriko aurkezpenean. KONTZEJUPETIK

Denboraldi berrian izango dituen kontzertuen berri eman du Oñatiko Musika Bandak. Zubikoako pilotalekuan egingo dira emanaldiak, 13:00etan, eta doakoak izango dira, bi izan ezik.

SEI EMANALDI, GUZTIRA

Zentzuekin gozatzeko izenpean, 2024-2025eko ikasturteko kontzertu denboraldiaren berri eman du Oñatiko Musika Bandak, eta sei emanaldi izango direla azaldu du aurkezpenean, "profil askotariko ikus-entzuleak erakartzeko asmoarekin"; baina, batik bat, "haurrak eta gazteak: alegia, etorkizuneko publikoa".

Kontzertuei dagokienez, azaroaren 24an izango da lehendabizikoa, *Entzun klasikoak* izenpean, eta Oñatiko Musika Bandarekin batera arituko dira Aita Madina txistulari taldeko kideak; abenduaren 22an, berriz, *Hator, hator 2024* kontzertua izango da, eta herriko kultur taldeek eta Oñatiko Banda Gazteak hartuko dute parte emanaldian. Urtarrilaren 6an egingo da denboraldiko hirugarren kontzertua, *Dastatu ametsak* izenpean.

ZEHAZTU GABEKO DATAK

Martxoan egingo da hurrengo emanaldia, *Ukitu musika* izenburupean, eta pedagogikoa izango dela aurreratu dute antolatzaileek, Oñatiko Banda Gaztea, Potx eta Izaskun pailazoak eta Musika Eskolako ikasleak lagun izanda. Apirilean, berriz, *Ikusi far west* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da eta ekainean, *Mugitu pop-rock* emanaldiaz.

Emanaldi guztiak Zubikoan egingo dira, 13:00etan, eta doakoak izango dira, bi izan ezik: urtarrilaren 6koak eta martxokoak, hain justu, 2 euroko prezioa izango dute.

Pake Lekuko kideak, ikasturte berriko jardueretan murgilduta

Argazki lehiaketako saridunak. PAKE LEKU

Pake Lekukoen azaroko jardueren artean, Asun Arsuagak zuzendutako *Zenbat urte dako amamak?* antzezlanaren estreinaldia izango da. Umorez betetako komedia da, eta bi egunetan izango da, Santa Anan: azaroaren 29an, 17:30ean, Pake Lekukoentzat, doan; eta bestea azaroaren 30ean, 19:00etan, herritarrentzat, 5 eurotan. Azaroaren 9an Olagarro Eguna ospatuko dute, eta azaroaren 27an gaztaina-erre jana egingo dute.

JARDUERAK MARTXAN

Argazki lehiaketa ere izan dute. 28 lan aurkeztu dira, eta saridunak Juanje Anduaga eta Gurutze Azkarate izan dira; beste sari bat ere banatu da, kasu horretan zozketaz, botoa eman duten bazkideen artean. Ikasturtean zehar egin ohi dituzten jardueretan 200 lagun inguru ari dira. Aurtengo berrikuntza zumba taldea da, baina yogan eta dantzetan hiruna talde ari dira eta ingelesa lantzen beste bi. Eta, horrez gain, euskara ikasteko taldea dago, euskarazko irakurketa taldea ere bai, eta lengoaia musikala, memoria, puntua, kakorratza, orratz lanak eta Interneten ibiltzen ikasten beste hainbat lagun dabiltza. Irteera ere egin dute, Gironara.

Pake Lekukoak, Gironara egindako bidaian. PAKE LEKU

Azaroaren 16an egingo da aurtengo Oñatiko film laburren rallya

XV. Oñatiko film laburren rallya azaroaren 16an egingo da, zapatua. Izena emateko aukera hilaren 11tik aurrera egongo da zabalik, *orl.antolakuntza@gmail.com* helbidean. Honako datu hauek helarazi beharko dira izena ematerakoan: taldearen izena, taldekide kopurua –gehienez ere, zortzi izango dira–, herria eta pertsona arduradunaren datuak –izena, telefonoa eta helbide elektronikoa–. Gehienez ere, hogei talderendako tokia egongo da eta izena ematen duten lehen hogei taldeak soilik onartuko dira. Lanek euskara hutsean eginak izan beharko dute.

Urtero bezala, goizeko zortzietan emango zaio hasiera egunari, ordu horretan elkartuko dira-eta film laburren rallyan parte hartuko duten taldeak, Santa Ana antzokian. Bertan jakingo dituzte filmean landu beharrekoen nondik norakoak, hala nola gaia zein izango den, zein den landu beharko den genero zinematografikoa, bai eta nahitaez erabili beharreko objektua. Aukeratuko diren hamar kokalekuetatik bi filmean agertzea ere ezinbestekoa izango da.

EMANALDIA, 22:00ETAN

Ideian pentsatu, gidoia egin eta grabaketak egin ostean, lanak entregatu beharko dituzte. Taldeek hamaika ordu izango dituzte lanak egiteko, eta 19:00etarako entregatu beharko dira horiek, antolakuntzak goizean talde bakoitzari emango dion USBan. Ordu horretan hasiko dira epaimahaikideak lanak baloratzen. Film guztien emanaldia Santa Anan izango da, 22:00etan, baina aurretik zabalduko dira ateak, 21:30ean, hain zuzen ere, urteroko *photocall*-erako.

Talde parte-hartzaile bat grabaketetan. KONTZEJUPETIK

Aurtengo Trikiti Jaialdia azaroaren 23an izango da, Santa Ana aretoan

Lizargarate Trikitizale Elkarteak gertu du dena Oñatiko XVI. Trikiti Jaialdirako. Azaroaren 23an egingo da, zapatua, Santa Ana aretoan, 17:00etan hasita. Santa Ana aretoa ez ezik, herriko kaleak ere girotuko dituzte trikiti eta panderoekin egun horretan, saioaren ostean kalean egingo baitute dagoeneko ohiko bilakatu den triki-poteoa. Ondoren, afaltzera joango dira Txopekua jatetxera, eta han jarraituko dute festarekin.

Trikiti jaialdia. KONTZEJUPETIK

Esan moduan, arratsaldeko bostetan ekingo diete ospakizunei Lizargarate Trikitizale Elkartekoek. Ordu horretan, Oñatiko eta kanpotik etorritako hainbat trikitilarik hiruna abestiko saioa egingo dute. Binaka, hirunaka edo taldeka egingo dituzte saioak. Guztira zazpi parte-hartze izango dira eta oñatiarrek izango dute saio hori ixteko ardura, horretarako, musika eskolako hainbat ikaslek osatzen duten Naizena taldea igoko da agertokira. Gainerako talde guztiak, Oñatitik kanpoko trikitilariek osatutakoak izango dira.

SARRERAK ESKURATZEKO

Bai 17:00etan hasiko den Santa Anako jaialdirako eta baita Txopekuan egingo den afarirako ere sarrerak eskuragarri daude dagoeneko. Horiek 12 eta 25 eurotan eskuratu daitezke, hurrenez hurren, Txokolateixan edo Oñatiko udal webgunean.

Hirugarren denboraldia abiatu du Burrunda Faktoriak

Kuartz eta Bloñ taldeen kontzertuarekin hasi zuen denboraldi berria Burrunda Faktoriak. Beste behin, Antixeneko Gaztetxea musikaz betetzeko asmoa dute hirugarren denboraldi honetan, eta beste lau kontzertu iragarri dituzte dagoeneko

Hirugarren denboraldia inauguratu dute Burrunda Faktoriako kideek, Ipar Euskal Herriko Kuartz eta Bloñ taldeen emanaldiarekin. Jende ugari elkartu zen Antixeneko Gaztetxean bi talde horiek ikusteko, eta taldeek ere ederki erantzun zuten.

KONTZERTUZ BETETA

Bi talde horien emanaldia ez da izango kontzertu bakarra; beste lau ere iragarri dituzte. Azaroaren 8an izango da hurrengoa, 22:00etan. GZR eta Olloki taldeak igoko dira gaztetxeko oholtzara. Hasiera batean Larru Beltzak taldea iragarri zuten arren, azken orduko arazoengatik Olloki taldeak ordezkatuko ditu. Hurrengo emanaldia azaroaren 22an izango da, 22:00etan, Vibora eta Armarri taldeekin.

Abenduan amaituko dute denboraldiaren lehen zatia, kontzertuak bi egunez jarraian eginda, 21ean eta 22an: lehen egunean Harat eta Nize taldeak izango dira gaztetxean, 19:00etan hasita; hurrengo egunean, berriz, 18:00etan, Amorante eta Mahal Kobat taldeak oholtzaratuko dira.

Azken emanaldian izango den Amorante bakarlaria. WIKIPEDIA

EKINTZA GEHIAGO

Denboraldiaren lehen zatia iragarri arren, bigarrena ere prestatzen dabiltza, eta kontzertuak ez diren ekintzak ere antolatu nahi dituzte. "Lehen zatiko bost ekitaldiak kontzertuak dira, baina hurrengo zatia prestatzen gabiltza eta espero dugu kontzertuez gain beste zerbait ekarri ahal izatea", adierazi du Burrundako kide Eneko Ibabek. Taldeak aurrera eraman duen bestelako ekintzetako bat *Burrundaraka* fanzinearen zenbaki berria prestatu eta banatzea izan da.

BALORAZIO POSITIBOA

2023ko urrian sortu zuten Burrunda Faktoria herriko hainbat musikazalek. Antixeneko Gaztetxea hartu zuten elkartearen etxetzat, eta geroztik hainbat ekitaldiz osatutako bi denboraldi eraman dituzte aurrera. Aurreko ikasturtean egindako lanaren balorazio positiboa egiten dute: "Balorazioa positiboa dela esango nuke. Adin askotariko jendea etorri da kontzertuetara, eta uste baino gehiago saldu dugu. Espektatibak gainditu ditugu".

Pirata Garrapata, antzezlanean.

Kutsadurak naturan sortzen duen eragina erdigunean Pirata Garrapatarekin

Urgain Herri Eskolak antolatuta, Patata Tropikala antzerki taldearen *Pirata Garrapataren abenturak* antzezlana egongo da ikusgai azaroaren 9an, 17:00etan, institutuko areto nagusian.

2 eta 12 urte arteko haurrei bideratuta dagoen antzezlana da, eta sarrerak salgai daude dagoeneko, Txokolateixan, 5 eurotan. Antolatzaileek azaldu dutenez, 2 urtetik beherako haurrek ez dute sarrerarik ordaindu beharko, baina tiketa aurrez hartu beharko dute.

KUTSADURA HIZKETAGAI

Magia, antzerkia eta txotxongiloak tartekatzen ditu antzezlanak, eta helburua kutsadurak naturan duen eraginaz hitz egitea da. Pirata Garrapata itsaso azpiko abentura batean murgilduko da, eta bertan egindako lagunek arazo izugarri bat azalduko diote, hark konponduko duen esperantzarekin.

4S Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing
Maite Alastui Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

Gezalaga Margoak
Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Rapa eta inprobisazioa euskaraz, euskal presoen etxeratzea eskatzeko

All In Da House txapelketaren irudi bat. ALL IN DA HOUSE

All In Da House freestyle txapelketako kanporaketa bat jokatuko da Antixena Gaztetxean azaroaren 29an, 21:00etan hasita. Hiru kanporaketa eta finala izango ditu txapelketak, eta horietako kanporaketa bat izango da Oñatikoa. Azaroaren 22an Gernikako Astran izango da lehenengo kanporaketa eta azaroaren 30ean, Hendaiako Enbata gaztetxean azkena. Finala Gasteizko Gaztetxean izango da, urtarrilaren 25ean.

OÑATIKO SAIOA

All In Da House Gasteiztik datorren freestyle txapelketa bat da, rapa, inprobisazioa, musika, sormena... uztartzen dituen proposamena. Bertan parte hartzen duten freestylerrek rap estiloan inprobisatzen dute, aurrez prestatutako gaien edo ariketen gainean; beti euskaraz. Hala, unean uneko sormenaz baliatuko dira oinarri musikal baten gainean inprobisatuz. Oñatiko saioan ariko diren freestylerrak honako hauek izango dira: Kortxelo, Papaya, Paula, Yoller, Muxker eta Gatom eta DJ Xerula. Epaile eta aurkezle lanetan, berriz, Oñatiko hainbat gonbidatu sorpresa arituko dira. Eta festa amaitzeko, DJ Bolatxasen pintxadaz gozatu ahal izango dute bertaratuek. Saioa iluntzeko bederatzietan hasiko bada ere, 20:00tik aurrera barra irekita egongo da eta herritarrek prestatutako pintxoak dastatzeko aukera egongo da.

FREESTYLE SAIOA

Ekimenaren bederatzigarren edizioa da aurtengoa, 2016ean ekin baitzion ibilbideari Gasteizen, *Ekaitz In Da House* izenpean, Ekaitz preso politiko gasteiztarraren askatasuna eskatzeko aldarrikapen moduan. 2020an, Ekaitz aske geratu ostean, *All In Da House* izena hartu zuen ekimenak, eta, gaur egun, euskal preso guztien etxeratzea eskatzeko ekimena da.

'Zorretan' antzezlana aurkeztuko du Hika Teatroak Santa Anan

Amaren gaiari heldu dio Hika Teatroa konpainiako Agurtzane Intxaurraga zuzendariak *Zorretan* izeneko antzezlanean. Azaroaren 8an eskainiko dute, Santa Ana aretoan, 19:00etan. Sarrerak salgai daude, 10 eurotan, *www.onati.eus* eta *www.hikateatroa.eus* webguneetan eta Txokolaterixan.

Antzezlanaren une bat. HIKA TEATROA

Amatasunari, zaintzari eta maitasunari buruzko tragikomedia bezala aurkeztu dute, komediatik tragediara salto egiten duen proposamena sortu baitu Intxaurragak. Batetik besterako jolas horretan, bakarrizketa poetikoak, elkarrizketa umoretsuak eta eszena absurdoak harilkatuko dituzte hiru protagonistek. Miren Gaztañagak, Jabi Barandiaranek eta Iñake Irastorzak antzeztuta. Kontakizunean zehar egoera komikoak, absurduak eta surrealistak txandatuz ibiliko dira, pertsonaien iraganaren, orainaren edo etorkizunaren artean biziko den narrazio hautsia eraikiz. Emakumeak bere mamuen aurka borrokatu beharko du, amarekin izandako harremana gogora ekarriz eta haurtzaroko beldurrak eta iraganeko minak agerian utzita. "Amarena zilborreste luzea da, sekula egunerokotasunik galtzen ez duena. Esaerak dio ama bakarra dela munduan, baina nik ama bakoitza mundu bat dela pentsatu nuen paper zuriaren aurrean jarri nintzenean", azaldu du Intxaurragak.

oñabike
oñabike.com
Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65
BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

"Txerria baserri guztietan zegoen eta harena zen jaten zen okela bakarra"

JOSE ANTONIO AZPIAZU
HISTORIALARIA, ANTROPOLOGOA ETA IDAZLEA

Azaroaren 11n ospatzen da San Martin eguna, antzina Euskal Herriko baserrietan txarribodak ospatzen ziren eguna. Gaur egungo ospakizunek ez dute garai bateko tamainarik, baina, halere, asko dira egun hori egutegian markatuta dutenak. Izan ere, txerria oso animalia garrantzitsua izan da Euskal Herrian; garrantzitsuena sozialki eta ekonomikoki, Jose Antonio Azpiazuk azaldu duenez. Eta badaki zertaz ari den, *El cerdo en la historia de los vascos* liburuan aztertu baitu animalia horrek Euskal Herrian izan duen pisua.

Jose Antonio Azpiazu, liburuarekin. KONTZEJUPETIK

Txerria Eibarko baserri baten. INDALECIO OJANGUREN

Zein garrantzi izan du txerriak Euskal Herrian?
Animaliarik inportanteena izan da, bi alderditatik: sozialki, baina, batez ere, ekonomikoki. Proteina ematen zuen animalia bakarra izan da, lehen behia ez baitzen jaten. Txerria baserri guzti-guztietan zegoen animalia zen eta dena jaten zen. XVI. mendean hasi eta gaur artera arteko lotura egiten dut liburuan; txerriaren inguruko ohiturak, erritoak, zelan zaintzen ziren...

Txerria jendearen laguna zela diozu.
Halaxe zen. Liburuaren azalean jarri dudan argazkiak ederki adierazten du hori. Indalecio Ojangurenen argazki bat da, Eibarko baserri batean ateratakoa, duela 80 urte baino gehiagokoa. Txerria ume artean azaltzen da, amandrearen ondoan, familiako bat bezala. Oraingo txakurra bezala zen.

Txerriaren inguruko mito batzuk ere gezurtatu gura izan dituzu; esaterako, animalia zikina dela.
Txerria beti lotzen dugu zikintasunarekin. "Hi haiz txerria, hi!" eta horrelakoak esaten ditugu. Garbia da, eta oso garbizalea. Gero, guk eraman dugu txerria leku estuetara, zikinetara. Txerriak ura edo hezetasuna behar ditu, izerdirik botatzen ez duelako, azalak uzten ez diolako. Horregatik behar du ura, hezetasuna eta euria, eta, lokatzak ura duenez, lokatz artean sartzen da, ez zikina gustuko duelako, baizik eta hezetasuna hartzen duelako.

> "Txerria ez da animalia zikina; garbia da, eta oso garbizalea. Guk eraman dugu toki zikinetara"

Eta ekonomikoki zein garrantzi izan du?
Familia gehienek txerriak zituzten, eta ez bat edo bi bakarrik. Txerrien haragia edota txerrikumeak saltzeko erabiltzen zituzten, eta horrek esan gura du negozio bilakatu zela. Orduan diru gutxi zegoen baserrietan, eta, txerria salduz gero, zapatak, olioa edo bestelakoak erosteko erabil zezaketen dirua. Txerria oso kotizatua egon zen.

Ofizioa ere bazen haiek zaintzearena.
Txerriak mendian egoten ziren, basoan. Artixan, esaterako, 2.000 bat txerri egoten ziren garai batean, ez oñatiarrenak bakarrik, Elgetan nonbait lursail gutxi eta handik ere ekartzen baitzituzten. Eta haiek zaintzeko aldikoak egoten ziren. Txerri-zaintzak ofizio pila bat ekarri zituen; pentsa, 2.000 txerri baziren basoan, horrek esan gura zuen hogei aldiko egongo zirela haiek zaintzen. Haiek otsoengandik eta hartzengandik babesteko sareak ere eratu ohi ziren.

Iparraldeak ere txerriarekin izan duen lotura jasotzen duzu liburuan.
Iparraldea baserri inguruko landa zen, eta hemen, hegoaldean, berriz, XVI. mendean industria geneukan, armagintzarekin eta burdingintzarekin oso lotua, eta jende askok ez zeukan lekurik txerriak hazteko. Orduan, Iparraldetik ekartzen zituzten txerri pila bat, esate baterako, Soraluzera, Eibarrera eta Elgoibarrera. Hemengoak txerri txikiak zirenean, hara bidaltzen zituzten, han gizendu eta berriz ekartzeko. Eta euskaldunek jaten zuten ia haragi bakarra txerriena zen. Behiak lanerako ziren, eta oiloak, arrautzak egiten zituztenak, merkatuan saltzeko.

Euskal mendizaletasunaren historiaren erakusketa, zabalik

> Argazki erakusketarekin hasiko da aurtengo **Mendi Hamabostaldia**
> **Alpinistak, mendi gidariak eta parapentelariak** egongo dira solasaldietan
> Aloña Mendiren **75. urteurrenean** sartu gura izan dute aurtengo egitaraua

Anton Iturriza erakusketa azaltzen Otxandion. EMMOA FUNDAZIOA

Aloña Mendiko mendi sailak prest du aurtengo Mendi Hamabostaldia. Dagoeneko zabalik dago urteroko hitzorduari hasiera eman dion erakusketa: *Mendian gora*. Kultura etxean dago ikusgai eta bi metroko altura duten 22 panelez dago osatuta, euskal mendizaletasunaren historia kronologikoki kontatzen dutenak. Panel horiez gain, baina, mendiarekin lotura zuzena duten hainbat osagai ere baditu erakusketak, izan granpoiak, motxilak edo argitalpenak. Emmoa Fundazioaren erakusketa ibiltaria da eta Oñatin egingo du geldialdia azaroan.

Hainbat film eta dokumental ere emango dituzte azaroan zinema-aretoan. Aipagarria da ikus-entzunezkoen egileak Oñatin izango direla, euren lanen proiekzioen ostean herritarrekin tertulia izateko prest. Etorriko dira, adibidez: Mattin Iñiguez eta Jose Ramon Agirre, *Baltoro. Oinez eta hegan* dokumentalarekin; eta Suam del Cerro Goñi, Iruñeko rafting-gidaria, *Colorado* lanarekin.

Erakusketa
'Mendian gora' Euskal mendizaletasunaren historiaren erakusketa. Azaroaren 22ra arte. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara, kultura etxean. Doan.

Film emanaldia
Mendi Film Festibal Azaroaren 14an, osteguna, 19:30ean. 5 euro.

Ikus-entzunezkoa
'Baltoro. Oinez eta hegan' Bi generazio arteko ikuspuntuak. 40'. Azaroaren 19an, asteartea, 19:30ean, zinema-aretoan. Doan.

Ikus-entzunezkoa
'Colorado' Errekaren jaitsiera kayak erabiliz. 50'. Azaroaren 22an, ostirala, 19:30ean, zinema-aretoan. Doan.

Cartonajes Arregui, S.A.
• Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
• Enbase eta enbalajeen fabrikazioa
Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Mendi federatuen txartelak aldatzeko edo berritzeko tramiteak, azaroan

Udazkena izaten da mendiko federatu txartela berritzeko sasoia, eta aurten ere azaroan egingo dute lan hori Aloña Mendiko mendi saileko zuzendaritzako kideek.

Aurten ere bi bide zabaldu dituzte tramiteak egiteko: bulegora joan eta saileko kide batekin aurrez aurre egitea edo helbide elektronikora mezua bidalita. Bulegoan egiteko, lau egun hauek finkatu dituzte: azaroaren 5a, 7a, 11 eta 13a. Egun horietan saileko norbait egongo da Aloña Mendiko bulegoan, 18:30etik 20:00etara, federatuen altak edo bajak bideratzeko edo txartel aldaketak kudeatzeko. Tramitazioa postaz egiteko, nahikoa da mezu bat bidaltzea helbide honetara: *alonamendi.mendi@gmail.com*. Azaroaren 24a aurretik egin daiteke modu horretara.

TXARTEL DIGITALA

2025eko federatu txartela, bestalde, digitala izango da. Txartel fisikoa desagertu egingo da eta digitala erabiliko da aurrerantzean.

Azaroko irteerari dagokionez, berriz, Oñatiko mugarriak ezagutuz egingo dute, hilaren 17an: Araotzetik irtenda, Ugastegitik, Urrusola Garai, Gorordoko tontorrak Ergüiña eta San Prudentzioko pinudiak zeharkatuko dituzte. Oñatiko bira bukatzeko egingo duten azken irteera izango da. Izena hilaren 14a aurretik eman behar da, bulegora joanda edo posta elektronikoz. Plazak mugatuak dira, autobusak 40 lagunendako tokia du eta.

"Oñatin futbolean jokatzeko aukera izatea izugarria izan zen"

ELENE GURIDI MESONERO
REALEKO FUTBOL JOKALARIA

Aloña Mendin egin zituen futboleko lehen urratsak Elene Guridi oñatiarrak, eta, Eibarren eta Realeko bigarren taldean jokatu ostean, aurten eman du Lehenengo Mailako jokalari izateko jauzia. Hori gutxi balitz, elastiko txuri-urdinarekin lehenengo gola sartzea ere lortu du Guridik, eta aurrerantzean Lehenengo Mailan minutuak batzea da haren helburua.

Lehenengo Mailako futbol talde bateko jokalari zara egun; ametsa egia bihurtu da?
Txikitatik naiz Realekoa, eta ordutik nire ametsa izan da futbol jokalaria izatea; zer hobe zure bizitzako taldean lehenengo mailako jokalari bilakatzea baino.

2018an iritsi zinen Realera, eta, harrobitik igarota, aurten lehenengo taldeko jokalari izatera igaro zara; nola aldatu du horrek zure bizitza?
Nire egunerokotasuna dezente aldatu da. Alde batetik, bigarren taldeko entrenamenduak arratsaldeetan izaten ziren, eta gaur egun, lehenengo taldearekin, goizez entrenatzen gara egunero. Horrez gain, bigarren taldeko jokalaria nintzenean, futbola eta unibertsitateko ikasketak aldi berean uztartzen nituen; goizetan unibertsitatera joaten nintzen eta arratsaldean entrenatzen nintzen. Iaz amaitu nuen Fisioterapiako gradua, eta aurten esan dezaket %100 aritzen naizela futbolean. Goizean entrenatu egiten gara, eta arratsaldean deskonektatu eta beste edozer gauza egiten dut. Asteburuak ere aldatu zaizkit; Lehenengo Mailako jokalari izateak eragiten du kanpoko partiduetara bidaiatzea, eta kanpoan jokatzen dugunetan bidaiatzen igarotzen dugu asteburu osoa. Beraz, esango nuke asko aldatu dela nire bizitza.

Exijentziari dagokionez ere nabari duzu aldaketa?
Bai, asko. Lehenengo Mailan jokatzeak exijentzia handia eskatzen du. Realeko bigarren taldeak 2. RFEF mailan jokatzen du gaur egun, eta erritmo zein fisiko aldetik aldaketa handia igarri dut lehenengo taldearekin jokatzen hastean. Iaz hasi nintzen eurekin entrenatu eta deialdietan sartzen, eta poliki-poliki ohitzen joan naiz lehenengo mailako exijentzia eta erritmo mailara.

> "Txikitatik naiz Realekoa; zer hobe zure bizitzako taldean lehenengo mailako jokalari bilakatzea baino"

Aurtengo denboraldiari begira, taldekide eta entrenatzaile aldaketak izan dituzue taldean; nolakoak izan dira aurreneko hilabeteak?
Asko aldatu da taldea, bai *staff*-ari dagokionez, baina baita jokalariei dagokienez ere. Jokalari berri asko etorri dira, eta aurreneko hilabeteak elkar ezagutzeko erabili ditugu, bai futbol zelaian, baina baita futbol zelaitik kanpo ere, eta entrenatzailearen ideiak barneratzeko ere balio izan digute lehenengo hilabete hauek, entrenamenduetan maila mantendu eta ikasitakoa asteburuetan erakusteko.

Iaz egin zenuen debuta, baina minutu gehienak, eta jarraian, aurten jokatu dituzu; igarri duzu entrenatzailearen konfiantza?
Bai; iazkoa izan zen nire lehenengo hartu-emana Lehenengo Mailako jokalariekin, eta, partidu askotako deialdian egon nintzen arren, gutxitan izan nuen jokatzeko aukera. Aurten, egia da ia jardunaldi guztietan izan dudala minutu batzuk jokatzeko aukera, eta horrek konfiantza handia ematen dit. Espero dut etorkizunean ere minutuak jokatzeko aukera izatea.

> "Betisen aurkako gola betirako eramango dut nirekin; egoera perfektua izan zen, ahaztezina"

Sailkapeneko goiko postuetan zaudete aurten; zein da helburua?
Helburu nagusia da aurreko urtean egindakoa hobetzea. Denok dakigu, eta horrela da, Reala dela goiko postuetan egoteko lehian aritu behar duen talde bat; batez ere, dituen jokalariengatik, entrenatzaile taldeagatik eta azpiegitura guztiengatik. Goiko postuetan egotea izan behar du helburuak, baina gehiegizko presiorik izan gabe. Guk umiltasun guztiarekin lan egingo dugu, partiduro hiru puntuak lortzen saiatuko gara, eta ea gutxinaka-gutxinaka goiko postu horiei eusten jarraitzen dugun.

Betisen aurka sartu zenuen zure lehenengo gola; nola oroitzen duzu une hura?
Betirako nirekin eramango dudan une bat izango da, zalantzarik gabe. Lehenengo Mailan sartu dudan aurreneko gola ahaztezina izango da. Gainera, harmailak bete-beteta egonda, zer esanik ez. Bertan zeuden familiako kideak, kuadrillakoak ere aspaldian etorri gabe, eta justu hor zeuden, baita beste hainbat oñatiar ere. Esango nuke egoera perfektua izan zela.

Urduri jartzen zaitu gertuko horrenbeste jende harmailetan ikusteak?
Niretzat oso positiboa den zerbait da, eta ez du gehiegizko urduritasun punturik suposatzen; guztiz kontrakoa. Gertuko jendea harmailetan egoteak konfiantza ema-

ten dit, eta nire jokoa egiten laguntzen dit. Urduritasuna baino, ilusioa da hitza.

Azaroaren 17an jokatuko duzue Athleticen aurkako derbia, Anoetan; berezia izango da?
Derbiak beti izaten dira oso bereziak, eta, batez ere, Athleticen aurka jokatzen ditugun partiduak; horiek guztiak ilusio gehigarriarekin hartzen dira, eta, are gehiago, Anoetan jokatzeko aukera izanda. Espero dut ahalik eta jende gehiena joatea futbol zelaira, partidu ona izatea eta, noski, hiru puntuak etxean gelditzea.

Ez dira asko izaten Anoetan jokatzen dituzuen partiduak; balio dute emakumezkoen futbolari bultzada emateko?
Zubietako harmailetan ez dakit zehazki zenbat zale sartu ahal izango diren, baina Anoetarekin alderatuta oso gutxi. Aukera oso polita da Zubietara etortzen ez diren horiek etortzeko, jende gehiagok ezagut dezan zer egiten dugun, jende gehiagok ikus dezan emakumezkoen futbola eta gero eta jende gehiagorena irits dadin.

Kontziente zarete belaunaldi berrien erreferente bilakatzen ari zaretela?
Ikusi da, urteak igaro ahala, emakumezkoen futbolak gora egin duela, eta guk geuk ere nabari dugu hori: jende gehiago joaten da futbol zelaietara, jende gehiagok ezagutzen gaitu, eta hori guretzat oso polita da. Presioa baino gehiago, ilusio handia sentitzen dugu; ikustea hau guztia aurrera doala eta etorkizunean emakumezkoen futbolaren parte izango diren belaunaldi berrien erreferente garela.

Elene Guridi, aurtengo denboraldiko partidu batean. REAL SOCIEDAD

"Derbiak beti izaten dira oso bereziak, eta, batez ere, Athleticen aurka jokatzen ditugun partiduak"

Realera iritsi aurretik, Eibarren ibili zinen, baina lehenengo urratsak Aloña Mendin egin zenituen. 75 urte bete ditu kirol elkarteak aurten, eta esan daiteke zu ere bazarela historiaren parte; nola gogoratzen dituzu urte haiek?
Gogoratzen dut mutilen taldearekin hasi nintzela futbolean jokatzen, orduan ez zegoelako emakumezkoen talderik, eta oso oroitzapen onak ditut, eurekin asko ibiltzen nintzelako futbolean jokatzen plazan edo frontoian. Emakumezkoen taldea sortu zenean, kuadrillakoekin batera hasi nintzen futbolean; tartean, Malen Osarekin eta Eider Egañarekin. Eta egia da hirurok iritsi garela elitera, bakoitza bere kirolean. Maleni buruz ez dut ezer berririk esango, munduari erakusten ari da zer-nolako gaitasuna duen; eta Eiderri buruz ere, berdina, Alavesen eta Eibarren lehenengo taldeetan jokatuta, zer esanik ez.

"Etorkizuneko futbolariei esango nieke guztia emateko eta euren ametsengatik borroka egiteko"

Zer izan da zuretzat Aloña Mendi eta zer esango zenieke datozen belaunaldi berriei?
Aloña Mendik eman dit futbolean jokatzeko aukera. Euregatik izan ez balitz, akaso, beste herriren batera joan beharko nukeen futbolean jokatzera, eta gazte-gaztetatik hasita aukera hori herriko taldean bertan izatea izugarria da. Aloña Mendi beti eramango dut nirekin. Zer esango niekeen futbolean hasi berri diren edo urte batzuk daramaten neska horiei? Bada, animatu gura ditut duten guztia ematera eta euren ametsengatik borroka egitera; ea etorkizunean baten batzuekin Zubietan elkartzeko aukera izaten dudan.

Urriko bigarren asteburuko partiduan, superkopakoan. HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA

Herriko futbol txapelketak ere hasi du denboraldi berria

> Aurten **hamabost talde** lehiatuko dira, azken denboraldian baino bi gehiago
> Azkoagainen dira partiduak eta azkenak **San Migel Txikien aurretik** izango dira

Urriko bigarren asteburuan jokatu zuten Superkopa joan den denboraldiko ligako eta eta kopako txapeldunek– Hangöver garaile eta Wingüte azpi txapeldun– eta aurtengo herriko futbol txapelketari hasiera eman zioten.

Hamabost talde lehiatuko dira denboraldi honetan. "Hamaika taldek hartu zuten parte duela bi denboraldi, hamahiru iazkoan eta bi gehiagok aurtengoan", zehaztu du zuzendaritza taldean dagoen Iñigo Idigorasek. Horietako bat da Kalaña; 20. urteurrena betetzen dute eta taldea egin dute, ospatzeko. Taldeak bi multzotan daude banatua eta euren artean lehiatuko dira. Asmoa da maiatzaren hasieran, San Migel Txiki jaiak heldu baino lehen, jokatzea finalak.

Josu Cambeses izango da norgehiagoken epaile titularra eta partiduen egutegiarekin batera izendatuko dituzte marrazain lanetan laguntzeko asteburu bakoitzean ibiliko diren taldeak. Partiduak Azkoagainen izango dira aurten ere, eta Aloña Mendikoek lehentasuna izango dute; ohikoa izango da ordutegiak ezberdinak izatea asteburu bakoitzean.

A Taldea
- Wulu wulu.
- Tutelatraku.
- Zalaparta.
- Kalekona.
- Weinguter.
- Iturritxo.
- Frakas brabas.
- Kalaña.

B Taldea
- Shatoken.
- Albok.
- Sarutobi.
- Hangöver.
- Ijittanuak.
- Sasquatch.
- Morekanbe.

Hirugarren izan da Malen Osa Golden Trail Series txapelketan

Hirugarren postua lortu du Malen Osa Ansak Munduko Golden Trail Series zirkuituan. Suitzan egindako lasterketa izan zen txapelketa horretako azkena –Ainara Uribarri ere lehiatu zen–, urriaren 19an, eta, bederatzigarren postuan bukatu bazuen ere –2 ordu 20 minutu–, zirkuituko puntuak batuta sailkapen orokorrean hirugarren sailkatu da Salomon etxeko korrikalari oñatiarra. Zirkuitu bereko aurreko lasterketetan, esaterako, bigarren izan zen Zegama-Aizkorrikoan eta bosgarren Japonian eta Txinan egindako lasterketa banatan. Txapelketa horrekin bukatu du denboraldia.

Malen Osa Ansa. XABIER AGIRRE

Itten bat

(*) Itten: arrastua, pistia

>> URRUSULAKO KONTUAK (eta XII)

ABERASTU

ITTEN atal honetako azkeneko hamaika numeruetan Urrusula auzoko kontuen gaiñian jardun dogu. Ikusi dagigun, bada, auzo hontaz zenbat ikasi dozun. Ia gauza zarien zuzen erantzuteko ondorengo galderai.

1) Zenbat baserri dagoz Urrusulan?
a.- 5
b.- 15
c.- 25

2) Gaurko egunian zenbat jente dago erroldauta Urrusulan?
a.- 6
b.- 16
c.- 26

3) Urrusulatik pasaitten diran hiru errekak nora eruaten dittue euren urak?
a.- Arantzazu errekara
b.- Ubao errekara
c.- Saratxo errekara

4) 1960ko neguko eurittiak eraginddako lurrikarak zein bi baserri mobiu eta, azkenian, hustu eragin zittuan?
a.- Antxitena eta Garaikua
b.- Osinaga eta Aristegi
c.- Erostarbe eta Hagiñalde [Áialde]

5) Zer da estegurra?
a.- Olaazixak egitteko ebalten dan egurra
b.- Garixa joteko ebalten zan egurra
c.- Burdixaren kargia estuketako ebalten dan egurra

6) Bi edo hiru kapako mezia egon dala entzun ezkero, zer entendiuko zeuke?
a.- Bi edo hiru abadek zelebrautako entierroko mezia egon dala
b.- Bi edo hiru egunetan egitten zan mezia esan gura dau
c.- Jai haundittako meziari esaten xako

7) Puxetarrixa zein beste izenagaz ezaguketan da Urrusulan?
a.- Harrixa b.- Albergia
c.- Puxetela

8) Zer da egurzaleria?
a.- Abadiaren etxera urte baten baserri batzuk egurra eta beste batzuk garixa eruatia, eta hurrenguan bestaldera, azkenian danak bardin eruateko
b.- Auzolanian egurra batzeia basuan
c.- Basuan batutako egurra subastan saltzeia

9) Zer da imillauna?
a.- Aliak eta bestelakuak pisaitteko ebalten zan bost kiloko neurrixa
b.- Aliak eta bestelakuak pisaitteko ebalten zan lau kiloko neurrixa
c.- Aliak eta bestelakuak pisaitteko ebalten zan hiru kiloko neurrixa

10) Zer da imiñia?
a.- Batez be aliak pisaitteko ebalten zan sei kiloko neurrixa
b.- Batez be aliak pisaitteko ebalten zan hamabi kiloko neurrixa
c.- Batez be aliak pisaitteko ebalten zan hemezortzi kiloko neurrixa

11) Urrusulan zeri esaten xako suertia?
a.- Kartetan joku danak irabaztiari.
b.- Haizpeian daguen zelai estu eta oso malkartsuari
c.- Gari urte onari.

12) Haizpeia berbiaren beste bi sinonimo emun
a.- Haitzondua eta haitz-nardia
b.- Aitzgain eta Argarate
c.- Atxulo eta Itsusabeko bentania

13) Zer da uratsa?
a.- Haitzondotik urteten dauen ur argi-argixa
b.- Metal-ura
c.- Arrautza ustelen usaiña dakon ur sulfurosua

Erantzunak: 1) b 2) b 3) a 4) c 5) c 6) a 7) c 8) a 9) c 10) b 11) b 12) a 13) c

AGENDA

ANTZERKIA

AZAROAK 8 / 19:00
'Zorretan'
Hika Teatroa taldearen antzezlana. Amatasunari, zaintzari eta maitasunari buruzko tragikomedia absurdoa (10 €).
Santa Anan

AZAROAK 9 / 17:00
'Patata tropikala'
Pirata Garrapataren abenturak. 2 eta 12 urte bitarteko umeendako (5 €).
Oñati Institutuan

AZAROAK 20 / 19:00
'Txizatoki bat eszenatokian'
Patxo Telleriak idatzi eta antzeztutako antzezlana (doan).
Zinema-aretoan

AZAROAK 20 / 19:00
'Hamalau'
Lutxo Egiaren testua (Cafe Bar Bilbao antzerki saria 2022), Mikel Martinezek antzeztua (doan).
Zinema-aretoan

AZAROAK 28 / 19:00
'Kirats onenak usnaka'
Eider Perez Adeletx eta Iban Illarramendi, *Ostegun kontalariak* ekimenaren barruan. LH-1etik gorako gaztetxoendako (izena eman behar da azaroaren 18a aurretik).
Haur liburutegian

AZAROAK 29 / 17:30 - 30 / 19:00
'Zenbat urte dako amamak?'
Ikusi Makusi antzerki taldearen umorezko antzezlana. 29an, Pake Lekuko bazkideendako (doan); 30ean, herritar guztiendako (5 €).
Santan Ana antzokian

BISITA GIDATUAK

AZAROAK 9 / 11:00
Jorge Oteiza eta Arantzazuko basilika
Elena Martinek gazteleraz egingo duen bisita gidatua, Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatuta eta *Ezagutu Arantzazu* izeneko ekimenaren barruan (5 €).
Arantzazuko santutegian

ERAKUSKETAK

AZAROAK 22 ARTE / 18:00 - 20:00
'Mendian gora'
Euskal mendizaletasunaren historiaren erakusketa.
Kultura etxean

HITZALDIAK

AZAROAK 12 / 18:00
'Emozioak eta autoestimua: tresnak hobe bizitzeko'
ACABE elkarteak antolatutako hitzaldi-tailerra.
Zinema-aretoan

AZAROAK 8, 9, 10, 11 ETA 12
'Marco' filmaren emanaldia
Estreinatzen den asteburuan bertan eskainiko dute Oñatin ere Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzendutako *Marco* filma; Moriarti ekoiztetxearen azkena. Ohikoak baino lau emanaldi gehiago programatu dituzte, bederatzi guztira (5 €).
Zinema-aretoan

IKUS-ENTZUNEZKOAK

AZAROAK 14 / 19:30
Mendi Film Festival
Sei proiekzio emango dituzte, mendia eta zinema bat eginda (5 €).
Zinema-aretoan

AZAROAK 16 / 22:00
Oñatiko film laburren rallya
Gaur egingo den Oñatiko film laburren rallyan egindako ikus-entzunezkoen emanaldia (doan).
Santa Ana antzokian

AZAROAK 19 / 19:30
'Baltoro. Oinez eta hegan'
Mattin Iñiguez eta Jose Ramon Agirre *Marron* alpinistak; bi generazio. Biak joango dira emanaldira (doan).
Zinema-aretoan

AZAROAK 22 / 19:30
Colorado errekaren jaitsiera kayaka erabiliz
Oñatin izango den Suam Del Cerro Goñirekin, Iruñeko rafting-gidaria, mendizale eta eskalatzailea (doan).
Zinema-aretoan

MUSIKA

AZAROAK 8 / 22:00
GZR eta Olloki
Burrunda Faktoriaren eskutik (8 € arrunta; 3 € murriztua).
Gaztetxean

Mekalki S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak
Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

AZAROAK 9 / 22:00
Anestesia eta Anker
Udazkeneko kultura agendaren barruan (aurrez 12 €; leihatilan 15 €).
Gaztelekuan

AZAROAK 10 / 19:00
Soinuak Haizean
Musikegunak egitasmoaren barruan (7 € arrunta).
Santa Ana antzokian

AZAROAK 17 / 19:00
Iñaki Palacios
Txistulariaren *Argizaiola* lana. Musikegunak egitasmoaren barruan (7 € arrunta).
Santa Ana antzokian

AZAROAK 22 / 22:00
Vibora eta Armarri
Burrunda Faktoriaren eskutik (8 € arrunta; 3 € murriztua).
Gaztetxean

AZAROAK 24 / 19:00
Xabier Zeberio
Pause lana. Musikegunak egitasmoaren barruan (7 € arrunta).
Santa Ana antzokian

ABENDUAK 1 / 12:30
Idoia Asurmendi
Udazkeneko kultura agendaren barruan (aurrez 10 €; leihatilan 12 €).
Gaztelekuan

TAILERRAK

AZAROAK 12,13 / 18:30
Soinu teknikari tailerra
Hastapen ikastaroa.
Antixena gaztetxean

AZAROAK 21, 25, 28 - ABENDUAK 2, 9, 16 / 18:30 - 20:00
Mindfulness eta erlaxazio tailerrak
Iturrigorri Elkarlan elkarteak antolatuta, Oñatiko Udalaren laguntzarekin (doan).
Euskaldun Berria gelan

AZAROAN
KZguneko formakuntza ikastaroak
Whatsapp, BakQ ziurtagiria, smartphoneen eta tableten erabilera, pantailak, sare sozialak eta erosketak modu seguruan egin (doan).
Kultura etxean

AZAROAK 20 / 19:00
Telleriaren eta Martinezen bakarrizketak
Bakarrizketa formatuan, antzerki labur bana egingo dute Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek hilaren 20an, liburutegiak antolatuta. *Txizatoki bat eszenatokian* (35 minutu) eta *Hamalau* (hogei minutu) dira lanen izenak, Tartean Teatroa etxeak ekoiztutakoak biak (doan). **Zinema-aretoan**

ZINEA

AZAROAK 7-8-9-10-11-12
Zinekluba: 'Crossing'
Nagusiak: 'Marco'
Haurrak: 'Robot salvaje'

AZAROAK 14-15-16-17-18
Zinekluba: 'Mendi Film Festival'
Nagusiak: 'La habitación de al lado'
Haurrak: 'Goazen' telesailaren lehen atala

AZAROAK 21-22-23-24-25
Zinekluba: 'La fragilidad del hielo'
Nagusiak: 'Gladiator II'
Haurrak: 'Elli y el equipo de monstruos'

AZAROAK 28-29-30 ABENDUAK 1-2
Zinekluba: 'Anora'
Nagusiak: 'Azken erromantikoak'
Haurrak: 'Central parkeko heroiak'

Zine-kluba: Osteguna (19:30)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (19:30) eta astelehena (19:30 / Ikuslearen Eguna)
Haurrak: Larunbata eta Igandea (17:00)

FARMAZIAK

ANDUAGA
San Lorentzo 3
943 78 21 16
AZAROAK 11, 12, 20, 21, 29 eta 30.
ABENDUAK 1.

IGARTUA
Kale Zaharra 1
943 78 01 22
AZAROAK 13, 14, 22, 23 eta 24.
ABENDUAK 2 eta 3.

GARATE
Kale Barria 42
943 78 05 58
AZAROAK 7, 15, 16, 17, 25 eta 26.
ABENDUAK 4, 5 eta 6.

JULDAIN
Kale Barria 6
943 78 11 28
AZAROAK 8, 9, 10, 18, 19, 27 eta 28.
ABENDUAK 7 eta 8.

MERKATU TXIKIA

GARAJE ITXIA alokairuan ematen da San Martinen; 24,5 m2-ko garajea da. Deitu: 666 39 18 67.

HEZKUNTZAN esperientziadun neska haurrak zaintzeko edota eskola partikularrak emateko prest. Goizez lehen orduak libre eta arratsalde guztiak. Deitu: 664 35 75 05.

ODOL ATERATZEA

AZAROAK 15
16:30-20:30, MUko Enpresagintza fakult.
Hitzordua hartzeko:
943 00 78 84.

COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Osasun aseguru on baten bila zabiltza?

MAPFRE

DKV

Sanitas

IMQ

Zure beharretara egokitzen den asegurua aukeratzen lagunduko dizugu!

COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

C/ Arantzazuko Ama, 9
20560 Oñati-Gipuzkoa

943 089006
coinbroker.eus
oinati@coinbroker.eus